



Chipi-Txapa bildumak lagungarri izan nahi du ikasleek hobeki ezagut dezaten Nafarroa. Horretarako oso pertsonaia bereziak, lagun egingo die Nafarroako eskola umeei Nafarroa ezagutzen eta bultza egingo die interes har dezaten beren lurraren historian, lege zaharretan eta Nafarroa hain bere gisako egiten duten hizkuntza, kultura eta ohituren aniztasunean.

Izenburua

Nafar Foruaren historia eta egungo baliotasuna

Bildumaren arduraduna

Curriculum Diseinu eta Garapenerako U.T.a
Hezkuntza Departamentua.

Diseinua

Cabodevilla Asociados

Azala eta azaleko argazkia

Asís Bastida

Argazkiak

Nafarroako Gobernuako Komunikazio Zerbitzuko Artxiboa.
Larrión y Pimoulier. Luís Azanza.

Imprimaketa

Gráficas Lizarra

ISBN

84-235-2710-7

L.G.

NA-2.852/2004

© NAFARROAKO GOBERNUA. Hezkuntza Departamentua

Sustatzaileria eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoak
Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
Navas de Tolosa kalea, 21
Telefonoa: 848 427 121
Faxa: 848 427 123
31002 IRUÑA
fondo.publicaciones@cnavarra.es
www.cnavarra.es/publicaciones



Nafar Foruaren historia eta egungo baliotasuna



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Nafar Foruaren historia eta egungo baliotasuna

Haur-haurretatik nafarrok aldi eta alde oro entzuten dugu Foruak aipatzen: gure hiri-herrietako paisaiak etengabe belarritaratzen dizkigu Foruak kale-plazetako izenetan, oroitaraziz zenbateko garrantzia izan duten eta gaur ere baduten guretzat.

Hala ere, gutxi dira, izan, Foruak zer diren eta Nafarroarentzat zer garrantzia duten esateko gai diren nafarrak.

Egoera horri erremedio jartzeko, Hezkuntza Departamentuak 1999an euskaraz eta erdaraz argitaratu zuen *Nafarroa, Foru Komunitatea* delako liburua, dibulgazio kutsuko lana, jende arrakasta handia izan zuena. Hori ikusirik, orain liburu haren bertsio DBHko ikasleentzat moldatua aurkezten dugu, *Nafarroako Foruaren Historia eta Egungo Balioa* izenpean. Hainbat jarduera didaktikoz horniturik heldu da, ikasgelan oinarritzko kontzeptuak landu ahal izateko.

Titulu berri hau *Chipi-txapa. Nafarroa ezagutu* delako bilduman ateratzen da, Hezkuntza Departamentuak argitaratua, eta sail monografikoaren lehenbiziko zenbakia da. Beste lantxo bakunago bat bidelagun duela agertzen da, gainera: *Nafarroako Foruak eta Institutuzioak*, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat pentsatua, bildumako oinarritzko sailean argitaratua.

Argitarapen honen bitartez, gainera, gure ikasleek aukera izanen dute xehero ezagutzeko nafar nortasunaren alderdi funtsezko bat, Forua alegia, nafar guztiek ezagutu behar genukeena. Zeren hondar-hondarrean Foruak, gure lege eta instituzio sistema bereziak, egiten baitu Nafarroa desberdin, 1512ra arte



independente zen eta orduz geroztik Espainiako monarkian partaide izan den Nafarroako Erresuma zaharraren ondarearen birtutez. Lege sistema hori haustura edo etenketarik gabe iritsi da gaurko egunotara, aldian behin, hori bai, itunaren bidez erreformatua. Itun-bide horren mugarri nagusiak, Espainiako Koroari erantsi ondoren, 1841eko Lege Itundua eta 1982ko Foruaren Hobekuntza izan dira.

Foruak, egia esan, barne-barnean darama ituntasun hori, zeren, liburu hone-tan aditzera ematen den bezala, Foruaren jatorria bera itun bat baita: aspaldiko baskoien eta Nafarroako monarkia sorberriaren arteko ituna alegia, zeinaren bidez erregeak bere burua lotzen zuen nafarren lege ohiturazkoak begiratzeko eta haiei men egiteko. Eite horrek desberdintzen du Nafarroa Europako beste monarkia guztietatik.

Nafarroako lege eta instituzio antolamendua kasu berezia da, beraz, Espainiako lurralde antolamenduaren barrenean, zeren 1978ko Espainiako Konstituzioak berretsi egiten baitizkio eskubideak, ez ematen.

Tradizio hori, Foruan haragitua, Nafarroako nortasunaren giltzarria da, eta orain, beste komunitate batzuk ere historikotasunaren zigilua beretzat eskatzen hasi diren honetan, ordu da, beste tradizio batzuk ezertan arbuiatu gabe, aldarrikatzeko Nafarroa dela inor bada Espainian komunitate histori-koa, eta hala ikasi behar dute gure eskolaumeek.

Luis Campoy Zueco
Hezkuntza Kontseilaria



OINARRIZKO KONTZEPTUAK

• Forua	10
• Foru Pribatua eta Foru Publikoa	10
· Nafarroako Zuzenbide Pribatua edo Zibila	10
· Nafarroako Zuzenbide Publikoa edo Politikoa	11
• Araubide itundua	12
• Nafarroako jarrera Espainiako Forutasunean	15
• Askatasuna, Nafarroako Foruaren oinarritzko printzipioa	17
• Nafarroako Foruaren Lehentasunezko Ordena	18
· Zuzenbide Pribatuari dagokionean	18
· Zuzenbide Publikoari dagokionean	19

FORUEN HISTORIA

• Nafarroako berezko zuzenbidearen sorrera	22
• Nafarroa Erdi Aroko Europan	24
• Nafarroako Batasuna Gaztelarekin	26
• Nafarroako forutasuna Borboien Estatu espainolean	29
• 1841ko Lege Itundua	33
· Lege Itunduaren gaineko kontsiderazioak	36
• Nafarroako Erakunde Publikoen Bilakaera	38
· Erresumako erakundeak 1841 artean	38
· Foru erakundeak 1841 eta 1982 artean	41
• Kontraforuak	43
· 1515etik 1812ra	43
· 1812tik 1841era	43
· 1841etik 1975era	44
· 1975etik aitzina	45
• Foru Zuzenbidearen bilduma	48
· XIX. M. arteko Bildumak	48
· 1841eko Lege Itunduaren ondoko bildumak	50

FORU SISTEMA GAUR EGUN

• Foruaren Amejoramentua	54
· Foruaren Amejoramentuaren eta Autonomia Estatutuen arteko ezberdintasunak	54
• Foru erakundeak gaur egun	56
· Nafarroako Parlamentua edo Gorteak	56
· Nafarroako Gobernua edo Foru Diputazioa	59
· Nafarroako Gobernuako Lehendakaria	61
· Nafarroako Justizia Auzitegi Gorena	61
· Kontoen Ganbara	62
• Tokiko Erakundeak	62
· Tokiko erakundeak: udalerriak eta kontzejuak	62
· Udalerrri soil eta konposatuak	63
· Tokiko eta eskualdeko erakunde batzuk	64
• Nafarroako Foru Erkidegoa eta Espainiako Autonomi Erkidegoak	65
· Espainiako Gorte Nagusiak, Legeria amankomuna	67
· Estatuarekin partekatutako eskumenak	67
• Nafarroako Zuzenbidea Europako Batasunean	68
· Europako Zuzenbidea eta Autonomi Erkidegoak	68

AZKEN ONDORENAK**ERANSKINAK**

· Dinastien Kronologia	74
· Hiztegia	78
· Bibliografia	84

JARDUERAK

89





Oinarrizko kontzeptuak

NAFARROAKO FORUA edo **NAFARROAKO FORUAK**, gure Erkidegoari berez dagozkion eta indarrean dauden legeak eta ohiturak dira: politikoak, zibilak, administratiboak edo ekonomikoak.

FORUA

Foru latinezko *forum* hitzetik dator. *Forum* hori erromatarren garaiko hiri bateko plaza nagusia zen. Plaza horretan epaiketak egiten ziren eta gainontzeko afera publikoak eztabaidatzen ziren.

Epaiketa horietan legea ezartzen zen eta horregatik, gaur egun, forua da legea, araua edo zuzenbidearen sinonimoa.

Legeak ez dira berdinak aldi eta alde oro. Herriek ohitura eta usadio ezberdinak dituzte. Eta legeek, zuzenak izanen badira, herri bakoitzaren errealitatea eta izaera aintzat hartu behar dute. Nafarroan, foruak geure legeak dira.

Foruak ez zituzten eman edo xedatu Nafarroako Errege-erreginek, ez Espainiako Monarkiak, ezta Estatuak ere. Izan ere, Nafarroaren eta unean uneko botere gorenaren edo burujabearen arteko emaitza dira, hau da, Nafarroaren eta Erregearen edo Estatuaren arteko emaitza.

FORU PRIBATUA ETA FORU PUBLIKOA

Zuzenbidea da legeez arduratzen den jakintza eta bi alde handiotan banaturik dago:

- **Zuzenbide pribatua edo zibila**, gizon-emakumeez, familiez, jabetzaz, herentziez, ekonomiaz eta bestez arduratzen dena.
- **Zuzenbide publikoa edo politikoa**, gizarte-bizitza antolatzen duten erakundeez arduratzen dena: udalak, monarkia, gobernuak, legebiltzarrak, eta beste.

Nafar Foruak ere bi alde horiek biltzen ditu. Ikus dezagun nola:

ZUZENBIDE PRIBATUA EDO NAFARROAKO ZUZENBIDE ZIBILA

Nafarroak beti mantendu du bere zuzenbide pribatua, hau da, Erresuma zaharrean aplikatzen ziren lege zibilen zuzenbidea. 1841eko Lege Itunduak aitortzen zuen zuzenbide pribatu horrek indarrean zirauela, baina Gorte zaharrak desagertzerakoan, piskana piskana galbidean jartzen zen, ez baitzitekeen zuzenbide hura eguneratu, gizartearen aldaketen arabera.

1973an, Estatuarekin egindako beste negoziazio hark **Foru Berria edo Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumaren** aldarrikapena ekarri zuen, hots, nafar zuzenbidearen egiazko kodea. Kode hark berak aurrikusten zuen Foru Berri hori ere aldatzerik izanzen zela etorkizunean Foru Diputazioaren eta Estatuaren arteko komenio bidez.

1982ko Foru Amejoramentutik honat, Nafarroako Parlamentuak besterik ez du zuzenbide zibila aldatzeko ahalmena.

NAFARROAKO ZUZENBIDE PUBLIKOA EDO POLITIKOA

1841etik aurrera, Nafarroako Zuzenbide publikoaren funtsa Lege Itunduan zetzan, zeinak Foru Diputazioarentzat autonomia zabala gordetzen baitzuen. Foru araubideko alderdirik nabarmenena zerga edo finantza mailako autonomia zen. Izan ere, horren bitartez, Diputazioak zergak ezar zitzakeen, eta, era berean, gastuak nahi bezala finka zitzakeen. Beraz, erabaki zezakeen zertan gastatu nafarren ahalegin ekonomikoaren fruitua. Horren bidez, Diputazioak eskuhar zezakeen, Nafarroaren garapenerako komenigarri iritzitako gauza orotan: errepideak, ospitaleak, eskolak, onegintza, kultura, industria eta nekazaritza sustapena, e.a. Udalek ere autonomia zabala zuten Diputazioaren tute-lapean. 1898an Foru Kontseilua eratu zen. Huraxe ordezkaritza-organua zen, Diputazioari aholkuak eskaintzeko, haren aurrekontuen eta kontuen berri emateko eta udal izaerako arauak onartzeko.

1982an, Foru Amejoramentua onetsi zenetik, Nafarroako Zuzenbide publikoak aldaketa sakona izan du. Izan ere, Nafarroa iritsi da autonomia-mailarik handiena edukitzera, Espainiako erkidego guztien artean. Haratx zergatik: foru araubidean barne hartutako eskumen berriekin batera, mantentzen dituelako Lege Itunduaren arabera, bere gain zituenak. Hortaz landara, Gorteak edo Foru Parlamentua ere berreskuratu du, horren bitartez, legeak emateko ahalmena duelarik.

Honenbestez, Nafarroa **administrazio alorreko autonomiaren** jabe da, eta, horren bidez, gobernu mailako eginkizunak ditu, baina lege-antolamenduan berrikuntzak eragiteko gaitasuna duten legeak emateko aukerarik gabe. Bada, hortaz landara, Nafarroa ere **autonomia politikoaren** jabe da, legeak eman baititzake eta gaitasuna baitu Zuzenbidean berrikuntzak eragiteko. Gaur

TOKIKO FORUAK ETA FORU OROKORRAK

Ez ditzagun nahas tokiko foruak —hau da, Erdi Aroan erregeek, sortzen edo errekonkistatzen ziren udalerriei ematen zizkietanak— eta foru orokorrak, Nafarroako Forua bezala. Azken hau konstituzio moduko bat zen, nafar lurralde osoan aplikatzen zena, eta, horren bidez, erregearen ahalmenak eta bere mendeakoen eskubideak zehazten ziren.



Vianako Forua. 1219.

Nafarroako Foru Zuzenbidea edo Nafarroako Foru Araubidea, Nafarroaren ez beste inorenak diren lege eta ohituren sistema bat da, zeinaren bitartez Nafarroak foru ahalmenak eta eskumenak betetzen baititu bere erakundeen bidez, hots, Nafarroako Parlamentua edo Gorteak eta Foru Gobernua edo Diputazioa.

Alor baten gainean, edozein izanik ere, Nafarroako berezko Foruak edo Zuzenbideak ez badu deus ere esaten, Estatuaren Zuzenbidea aplikatzen da, Foru Amejoramenduan egindako eskumenen zehaztapenaren arabera.

Horregatik, foru araubidea sistema itundua da, hau da, Nafarroa eta Estatuaren arteko hitzarmenaren emaitza da.

egungo Autonomien Estatuan, botere politikoa banatzen da Estatuaren eta Autonomi Erkidegoen artean. Honenbestez, hein handi handi batean, administrazioaren deszentralizazio hutsezko erregimenaz haratago doa.

Ondorioz, honatx zeintzuk osatzen duten Nafarroako Zuzenbide Publikoa: 1982ko Amejoramentuak, Foru Parlamentuak onetsitako legeak eta Gobernuak edo Foru Diputazioak ematen dituen araudiek.

Harreman pribatuak dagokienean, berriz, Nafarroako Zuzenbidea gizabana-koaren eta familiaren askatasunean datza, bidea ematen baitie gizon-emakumei euren bizitza, familia eta ondarea, nahi bezala, antolatzeko. Era berean, zer zibilaren edo pribatuaren oinarrian dagoen askatasunaren ideiak berberak funtsatzen du Nafarroako askatasuna edo autonomia politikoa Foru Erkidego gisa. Egungo Nafarroako foru araubidearen oinarrian dago **gure burua gobernatzeko eskubidea**, esan nahi baita, badugu gure burua geurez gobernatzeko eskubidea nafarrei dagokien gauza orotan, muga bakarra delarik Espainiako konstituzioaren barruko batasuna.

Konstituzioaren barruko batasun hori doakie nazio espainiarrari datxezkion eskumen guztiei. Konparazio batera: diplomazia, defentsa, ekonomiaren oinarriak, Gizarte Segurantzak, e.a. 1982ko Foru Amejoramenturako hitzarmenaren xedea izan zen, argi eta garbi bereiztea zein eskumen dagozkion Nafarroari, konstituzioaren barruko batasunaren baitakoak ez diren heinean, hain zuzen ere. Oron buruan, egun, hauxe esan dezakegu: Forua da konstituzio-batasuna ez den gauza oro.

ARAU BIDE ITUNDUA

Nafarren eskubidea eta askatasun sorta ez da edozein unetan eman edo ken daitekeen emakida edo pribilegio bat. Jatorrizko eskubideak dira, Nafarroaren eta Erregearen edo Estatuaren artean itunduak.

Erdi Aroan, Nafarroako Erresuma egituratu zen monarkia itundu gisa.

Erregeak nafarren ordezkaritzaekin hitzarmena egiten zuen eta, bakar bakarririk, erregetzat aintzat hartzen zuten, alde aurretik Erresumaren usadio, ohitura, foru eta legeei men eginez gero. Nafarroako errege-erreginek printzipio konstituzional hauek –Foru Orokorrean bildurik zeudenak, XIII eta XIV. mendeetan idatziak– zin egin eta gorde zituzten 1841 urtera bitartean.





Erreegen eta erregeordeen zinareen hitz tradizionalak

1839 eta 1841 bitartean, lehen karlistaldiaren ondotik, Lege Itundua negoziatu eta aldarrikatu zen. Hitzarmen edo komenio berria izan zen hura, zeinaren bitartez, Nafarroak Erresuma izaera lagatu baitzuen Espainia barreneko autonomia zabalaren orde. Hura administrazio mailako autonomia zen, bereziki. Aldi berean, Estatu berriak bere burua mugatzen zuen, batetik Nafarroako nortasun juridikoa aintzat hartzerakoan eta, bestetik, aitortzerakoan akordio bidez besterik ez zitekeela Nafarroako araubidean lege mailako aldatarik sar.

Ordutik honat, –hasieran zalantzak izan baziren ere– Espainiako gobernu guztiek aintzat hartu dute Nafarroako foru araubidearen izaera itundua.

1978ko Konstituzioak, Nafarroako eskubide historikoak babestu eta aintzat hartzen ditu. Horrek esan nahi du Estatuak ez dezakeela, foru araubidea, alde bakarretik, aldatzen duen legerik, araurik edo beste edozein xedapenik eman. Estatuak eta Nafarroaren artean, auzirik gertatzen baldin bada, norberaren eskumenen nondik norainokoaz, Auzitegi Konstituzionalak azken hitza izanen du, eta, kontuan hartu behar da auzitegi horrek, aldi oroz, gogoan eduki behar duela Konstituzioak berak dakarren betebeharra, hots, Nafarroako araubidea babestu eta aintzat hartu behar izana.

FORUEN GAINEKO ZINA

Nafarroako erregeek, Iruñeko Eliza Ama Katedralean burutu behar zen koroatze ospakizunean, Foruen zina egin behar zuten, eta, konpromezua hartu behar zuten Foruak aintzat hartzeko, “amejoratzeko” eta inoiz ez txartzeko. Aldi berean, erregeek Erresumako ordezkarien fideltasuna edo leialtasunaren zina jasotzen zuten. Gisa horretan, gertaberritzen zen Nafarroako Monarkiaren muinean, hasieratik, agertzen den hitzarmena. Hona nola laburbildu daitekeen: “Guk errege egiten zaitugu, zuk, ordainez, zin egiten duzu gure askatasuna eta gure eskubideak babestuko dituzula”. Errege Teobaldo I.ak eskatuta, 1238an ekin zioten Erresumako Foru zaharrak idazteari eta lan horren emaitza izen zen Nafarroako Foru Orokorren argitalpena. Lehendabiziko ataletan, idazleek idatziz jaso zuten bazela “Foru Zahar” bat, ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi ordura arte iritsitakoa, eta, “Foru Zahar” horretan biltzen ziren Nafarroako Monarkiaren funtsezko printzipioak. Printzipio hauek erregearen boterearen mugaketan zeutzan. Horrenbestez, gerrazkoak edo pakezkoak egiteko edo erresumarendako beste edozein gauza garrantzitsu aurrera eramateko, erregeak jaun gorenaren kontseilua aintzat hartu behar

zuen (hamabi aberats edo hamabi jakintsu zahar). XIII. mendetik aitzina, aholku eskatzearen betebeharra gauzatzen da goi elizjendearen, nobleziaren eta hiri nahiz hiribildu nagusietako ordezkarien deialdiaren bitartez. Horrek Gorteak sorrarazten ditu.

Gaztelako koroan sartu ondoren, ezinezkoa zen fisikoki errege-erreginak Iruñera joatea koroatuak izan zitezen, Estatu asko baitzegoen Monarkiaren barrenean. Horrexegatik, errege-zina Erregeordeak egiten zuen Nafarroako Gorteen aurrean. Erregeordeak behar zituen erregeak xede horretarako bereziki emandako botereak.

Zenbaitetan, Koroaren oinordekoak etortzen ziren Foruen zina egitera. Konparazio batera, halaxe egin zuen infante Felipek –Gaztelako Felipe III.a eta Nafarroako V.a izanzen zena–. Foruen zina egin zuen Gorteen aurrean, bertan zelarik bere aita, errege Felipe II.a (Nafarroako IV.a). Erregeorde Ezpeletako Konteak egin zuen historiako azken errege-zina. 1817an izan zen, zehazki, Nafarroako Gorteen aitzinean. Aldi berean berretsi zuen Fernando VI.ak, 1784an, egin zuen zina, eta, erregeak konpromezua hartzen zuen honetarako, hots, “mantener y guardar todos vuestros

Fueros, Leyes y Ordenanzas, usos y costumbres, franquiza, exenciones, libertades, privilegios y oficios que cada uno de vosotros presentes y ausentes tenéis y por la forma que lo habéis usado y acostumbrado, sin que sean aquellos interpretados sino en utilidad y provecho, conveniencia y honor del Reino; y que así lo mantendrá y guardará S.M. en todo el tiempo de su vida y a vuestros sucesores, no obstante la incorporación echa de este Reino con la corona de Castilla, para que este dicho Reino de Navarra quede de por sí y le sean observados los dichos fueros, leyes, usos y costumbres, privilegios, oficios y preeminencias, sin quebrantamiento alguno, amejorándolos y no apeorándolos en todo ni en parte, y que todas las fuerzas y agravios y desafueros que a vosotros y a vuestros predecesores hasta aquí se han hecho por los Señores Reyes antepasados de este Reino y por sus oficiales, los deshará y enmendarán bien y cumplidamente segun fuero, como también los que en adelante se hicieren sin excusa ni dilación alguna, a saber es, aquellos que por buen derecho y con verdad se hallaren por hombres buenos, cuerdos, naturales y nativos del dicho Reino”.

Nafarroako foru zuzenbidea, gaur egun, bi Lege Itunduetan biltzen da:

1. Zuzenbide pribatua edo zibila, Foru Berria, 1973koa.
Horren aldaketa orain, huts hutsean, Nafarroako Parlamentuaren mende dago.
2. Zuzenbide publikoa, Foru Amejoramentuan, 1982koa, ofizialki Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari Buruzko Lege Organikoa deritzaiona, 1982ko abuztuaren 10ekoa. Esan daiteke, Nafarroako Foru Erkidegoaren barne konstituzioa dela.

Foru zuzenbidea ez du alde bakarreko aginteak sortzen, akordioak, komenioak edo hitzarmenak baizik.

NAFARROAKO JARRERA ESPAINIAKO FORUTASUNEAN

XV. mendearen akaberan, Errege Katolikoek ezkontzak Gaztela eta Aragoako Koroen batasuna ekarri zuen. Azken hau –Aragoa– Erresumen konfederazioa zen –Aragoa, Katalunia, Valentzia eta Mallorca– baina horietako bakoitzak bere antolamendu politikoari eutsi zion. Nafarroa Gaztelako Koroan sartu zenean, baldintza hauxe izan zen: ukitu gabe gordeko zirela bere erakundeak eta bere nortasun politikoari eutsiko ziola Koroaren gainontzeko erresumekin alderatuta.

Beraz, Espainiako Monarkiak, Karlos I.aren eta, batez ere, Felipe II.aren errotu zena, antolamendu deszentralizatu zuen. Erresuma guztiek parte hartzen zuten Monarkiaren kanpoko zeregin guztietan, baina, barnera begira, bakoitzak bere zuzenbidea eta erakundeak gordetzen zituen. Foruak ez dira huts hutsean nafarrak.

Karlos II.a ondorengorik gabe hil zenean, huraxe izan baitzen Austriako Etxearen azken erregea, 1700eko ondorengotza gerra gertatu zen Felipe V.a (Frantziako errege Luis XIV.aren biloba) eta Austriako Karlos artxidukearen artean, eta, gerra horrek ondorio handiak izan zituen Monarkiaren antolamendu politikoarentzat. Felipe V.ak erabaki zuen erresuma guztiak Koroa bakar batean batzea eta, “Nueva Planta” deritzaiei Dekretuen bitartez (1714), Aragoako erresumek euren Foruak galdu zituzten eta Gaztelakoekin berdindu zituzten. Hortaz, Gaztelako arauak aplikagarri gertatuko ziren, aurrerantzean, erresuma haietan guztietan, Zuzenbide Zibila ezik. Nafarroak besterik ez zuen bere erresuma izaera mantendu erakunde guztiekin (Erregeordea, Gorteak, Erresumako



Felipe V.aren erretratua, 1797an Diego Díaz del Vallek margotua (Iruñeko Udaletxea)

Diputazioa, Errege Kontseilua, Kontuen Ganbara eta gainontzeko justizia auzitegiak). Halaber, Felipe V.ak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foruak aintzat hartu zituen, baina ez ziren Nafarroakoak bezalakoak, zenbait mende lehenago sartuak baitziren Gaztelako Koroan.

Felipe V.ak politikaren eta administrazioaren zentralizazioari heldu zion, eta, prozesu hori XIX. mendean errotu zen, liberalismoa garaile atera zenean.



Karlistaldiko soldaduak.

Cadizko Konstituzioak (1812) arront araubide zentralizatua ezarri zuen, lurraldea banatu baitzuen legeria berberari lotutako probintzietan. Ondoko Konstituzio guztiek –1837, 1845, 1869 eta 1876– ildo zentralizatzailer horri eutsi zioten.

Bergarako Hitzarmenaren ondotik (1839), zeinaren bidez lehen karlistaldia bukatu baitzen, Nafarroak, Espainiako Estatu bateratuan sartzea itundu zuen Estatuarekin eta utzi egin zion erresuma izateari. Dena den, berretzat gorde zuen administrazio mailako autonomia zabala, Foru Diputazioak betetzen zuena.

Horrela Foru Diputazioa Nafarroako egiazko gobernu izatera iritsi zen. Delako hitzarmen horri, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itundua deitu zitzaion.

II Errepublikaren Konstituzioak (1931), saialdia egin zuen Espainia erregionalizatzeko, 1936ko gerra zibilak zapuztu zuena. Ondotik, 1978ko Konstituzioak bukaera eman zion Estatu zentralistari, horren ordeztatu “Autonomien Estatua” deritzaiona ezartzeko. Horrek, 1982an, Foruaren “amejoramenduari” ekitea, ahalbidetu zuen. Nafarroak, horrenbestez, bere foru araubide historikoaren eskutik zuen autonomia administratiboaz gain, erabateko autonomia politikoa ere erdietsi du, eta, berreskuratu eta demokratizatu ditu Gorte zaharrak –Nafarroako Parlamentua–, hau da, ahalmena du legeak emateko, foru eskuduntzaren barneko alor guztietan.

FORUAK ESPAINIAKO BESTE ESKUALDE BATZUETAN

1. Lehendabizi, Gaztelako Erresumako Foruak (Gaztela, Leon, Galizia, Asturias, Extremadura, Murtzia, Andaluzia, Kanariak eta Indiak) batu egin zituzten. Zenbaitetan, indarrez, komuneroen gerran bezala. Horretan oinarritu ziren, ondoren Espainia osoko legeak eta erakundeak batzeko.
2. 1714an, Ondorengotza Gerraren ondotik, Aragoako Koroako lurraldeek euren foruak eta erakundeak galdu zituzten (Katalunia, Aragoa, Valentzia eta Balearak). Ordutik honat, ondoko lurralde hauek besterik ez zituzten euren foruak gorde: Bizkaiko Jaureriak, Araba eta Gipuzkoako probintziak eta Nafarroako Erresumak.
3. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foruak 1876an ezeztatu zituzten, Hirugarren Karlistaldiaren ondotik. Geroago, nola halako zerga-autonomia berreskuratu zuten, kontzertu ekonomikoen bitartez arautua.
4. Nafarroan, ordea, 1841eko hitzarmenari esker, ez ziren foruak oso osoan inoiz galdu. Nafarroako zuzenbide pribatua oso osorik gorde zen eta Foru Diputazioa erakunde berezia eta ezberdina izan zen gainontzeko Diputazio probintzialekin alderatuta. Arazoa, ordea, hauxe zen: Gorteak desagertzerakoan, foru araubide osoa ere desagertze bidean jartzen zen. Izan ere, ez zitekeen forua behar bezala “amejoratu”.

Nafarroako foru araubidea denetan osoena da, Estatuaren zentralismoari arrakastaz eutsi zion bakarra izan baitzen.

Horregatik, Nafarroa, forutasunaren eredu historikoa da, hala Zuzenbide pribatuan nola Zuzenbide publikoan.

ASKATASUNA, NAFAR FORUAREN OINARRIZKO PRINTZPIOA

Askatasuna foruaren oinarrian dago, hala Zuzenbide pribatuan nola publikoan. Askatasun zibilaren printzipioa Nafarroako zuzenbide zibilaren printzipioa da.

Printzipio horri jarraiki, nafarrek, nahi bezala, arautu dezakete euren harreman pertsonalei dagokien gauza oro: senar-emazteen araubide ekonomikoa, herentzia bidezko suzesioa, e.a., eta ezartzen da “paramiento (hitzarmena), fuero y ley vienze” delako printzipioa. Horrek esan nahi du alderdien borondatea, halako inguruabar zehatzetan, Zuzenbidearen edozein iturriren gainetik egon daitekeela. Horrek badu salbuespenik, beti ere: borondatea moralaren edo ordena publikoaren kontrakoa izatea, hirugarrenentzat kaltegarri izatea edo kontra egitea, aginte-izaerako Foru Berriko arau bati.

Zuzenbide publikoan nagusi da legeak, hiritarren eskubideei eta askatasunei men egitearen printzipioa. Era berean, Foru Orokor zaharrak zioen erregeak ez zitzakeela hauts nafarren oinarrizko eskubideak.

Nafarroako foruan askatasunaren ideia hau, esan nahi baita, pertsonaren autonomiaren ideia, familia, etxea eta nafar erakundeen ideia hau, **subsidiaritatearen printzipioari** jarraiki antolatzen da. Printzipio honen arabera, entitate txikiago batek egin dezakeena ez dezake entitate handiagoak egin.



Honatx Obanosko Infanzonien goiburua “Pro libertate Patria, gens libera state” (Zutik gizon libreak, aberriaren askatasunaren alde!), Nafarroako Jauregiaren atari nagusian dagoen plaka honetan irakurgai dagoena. Goiburu honek harremanetan jartzen du pertsona bakoitzaren askatasuna askatasun kolektiboarekin eta publikoarekin.

Autonomia orok mugak ditu, jakina. Honatx zeintzuk diren: elkartasuna eta interes orokorra edo guztien onak aintzat hartzea, ez egin moralaren edo ordena publikoaren kontrako deus eta ez jokatu besteen kaltetan.

NAFARROAKO FORUAREN LEHENTASUNEZKO ORDENA

Sistema foralaren arabera, gizarte-bizitza arautzeko balio duten zuzenbidearen iturriak ordenatzerakoan, konparazio batera epaiketetan epaiak emateko, hona hemen zein den lehentasunezko ordena:

ZUZENBIDE PRIBATUARI DAGOKIONEAN

1. Borondatea (alde batekoa edo kontratuzkoa)

Kontuan hartzen den lehendabiziko gauza, pertsona bakoitzaren erabaki librea da, baldin eta erabaki horrek kontra egiten ez badio moralari edo ordena publikoari, beste batzuei kalte egiten ez badie eta lege bati kontra egiten ez badio.

2. Ohitura

Baldin eta moralari edo ordena publikoari kontra egiten ez badio, eta kontrakoa dioten legeak izan arren.

Esate baterako, erregei, erregeordeei eta funtzionarioei eskatzen zitzaaien zin egitea, haien agintea aintzat hartu baino lehen, foru ohituraren bitartez egiten zen. Horregatik, ez zen beharrezkoa gertatu lege gisa idaztea edo onestea.

3. Foru legeak, ondoko lege, bilduma eta akordioetan bilduak:

- Zuzenbide Zibila edo Nafarroako Foru Berriaren Bilduma, 1973koa*.
- Foruaren Hobetzearen Lege Organikoa (LORAFNA), 1982koa.
- Ondoko amejoramendu eta komenio osagarriak.
- Foru erakundeen akordioak (Nafarroako Parlamentua eta Gobernua).

* 1973ko Foru Berriak ez ditu Nafarroako tradizio juridikoaren iturriak indargabetzen. Aplikagarri dira, ondoko ordenari jarraikiz: Bilduma Berriaren ondoko Gorteetako legeak (1724tik 1829ra), 1735eko Bilduma Berria, 1330 eta 1418ko Foru Amejoramenduak, XIV. mendeko Nafarroako Foru Orokorra, Erdi Aroko tokiko foruak, eta Erromatar Zuzenbidea. 1756ko Gorteen erabaki zuten Justinianoren erromatar zuzenbidea ordezkua izanen zela.

4. Foru Berriaren 4 legean zehaztutako Zuzenbidearen printzipio orokorrak, hau da, historian barrena, Nafarroako lege-antolamendua informatu duten zuzenbide naturala edo historikoaren printzipioak.
5. Espainiako Kode Zibila eta Espainiako lege orokorrak.

ZUZENBIDE PUBLIKOARI DAGOKIONEAN

Foruaren Amejoramenduari jarraiki, Nafarroako eskumenean huts hutsean dauden alorretan, Nafarroako Zuzenbidea –foru legeak eta araudiak– lehen-tasunez beste edozeinen gainetik aplikatu beharra dago. Haren ordeztu, hau da, arau nafarrik ezean, Estatuaren Zuzenbidea ezartzen da.

Nafarroako eskumenean, huts hutsean, ez dauden alorretan Europako Bata-suneko edo Estatuako Zuzenbidea ezartzen da. Dena dela, kontuan hartu beharra dago, kasu aunitzetan, Nafarroak ahalmena baduela arauen garape-nean edo betekizunean.



Nafarroako Foru Orokorra



Foruen Historia



Nafarroako Foru Orokorra
ohiturazko zuzenbideko arau
sorta da (ohituran oinarritua).
Errege Teobaldo I.aren gorteko
legelari anonimoek bildu
zituzten arau horiek.

NAFARROAKO BEREZKO ZUZENBIDEAREN SORRERA

Herri primitibo aunitzek elkarren segidako hiru aro izan zituzten euren zuzenbidean: epaien aroa, ohituren aroa eta bildumen edo kodeen aroa.

Nafarroako Zuzenbidean, ordea, besteetan ez bezala, legeen argitalpen idatzia ez zuen usadio eta ohituren indarra higatu. Ohiturazko Zuzenbide hori, hau da, hasierako baskoien ohituretan zetzana, ahoz transmititua, erromatar eta bisigodoen zuzenbideek eragina, idatzi egin zen foruetan, tokikoetan nahiz orokorretan, baina beti ulertzen zen lege idatzia ez zuela aurreko ohitura baliogabetzen.

Horrelaxe, beraz, biltzen joan ziren usadio eta ohitura horiek: lehendabizi tokiko foru labur edo zabaletan, herri bakoitzari erregeek emandakoak eta foru “familia” deitutakoen arabera, sailkatuta daudenak (Lizarrakoa, Jaka-Iruñekoa, Viguera, Novenera, Tuter a.e.a.) eta geroago Nafarroako Foru Orokorrean.

Nafarroako Foru Orokorra, ohiturazko zuzenbidearen arau sorta bat da, Errege Teobaldo I.aren (1234 - 1253) gortetik hurbil zeuden legelari anonimoek jaso zituztenak. Teobaldo I.a izan zen Nafarroako lehendabiziko errege kanpotarra. Lehendabizi zenbait hiriri eman zitzairen tokiko foru gisa, baina laster “ius commune Navarrae” edo Foru Orokorra izatera iritsi zen. Foru Orokorraren behin-betiko testua hamabi ataletan finkatu zen XIV. mendearen hasieran eta Nafarroa osora zabaltzen ari zen. Errege Felipe III.ak eta Karlos III.ak (1330 eta 1418 urteetan) Amejoramentuak edo foru berriak onesten dituzte.

Beraz, Nafarroako Foru Orokorra Nafarroako Erresumako konstituzio politikoa bezalakoa zen. Erregeen altxamendu eta zinaren prozedura arautzen zuen, eta, gerrazkoak eta pakezkoak egiteko modua ere bai. Halaber, berme prozesalak, zigorra eta zehapenak, eta zenbait arau zibil arautzen zituen -garai hartan ez ziren ezberdintzen gaur egun egiten den moduan zuzenbide publikoa eta zuzenbide pribatuaren artean.

Errege Teobaldo I.aren zigiluak.



*Leireko San Salvador
 Monasterioko Kripta*





Erriberriko Gaztelua, Nafarroako Erregeen Egoitzetarikoa bat.

Erdi Aroan, Kristandadea oso erresuma, printzerri eta jaurerri ezberdinez osaturik zegoen, elkarren artean borrokan ari zirenak, maiz.

***Nazio* hitza modu zehaztugabea eta zabalean erabiltzen zen. Esaten zen Europan bost nazio zeudela: Alemania, Italia, Frantzia, Espainia eta Ingalaterra.**

***Estatu* hitza, berriz, erabiltzen zen errege edo noble baten agindupeko lur jurisdikzionaletarako edo fiskaletarako.**

Pertsona bakoitzaren harreman zuzena noraino iritsi, haraino *aberriaren* esparrua, gehienetan oso esparru murrizta izaten zena.

Era berean, Foru Zaharrak agindu batzuk badauzka erregearen boterearen mugaketei buruz, justiziaren administrazioari dagokionean, eta, nafarren betebeharrak militarrek ere zehazten dituzte. Halaber, Koroaren ondorengotza arautzen du, erregeren seme zaharrenak oinordetzan hartu behar zuena, gizonen eta emakumezkoen artean bereizketarik gabe.

NAFARROA ERDI AROKO EUROPAN

XIII. mendean, Europako erresuma kristauak hiru zutabe handiotan dautza:

1. Usadio eta ohituren Zuzenbide berezia, lege idatzietan jasotzen direnak.
2. Gorteak edo gizarte-estamentuen batzarrea, “Erresumaren” ordezkari direnak.
3. Koroa edo Erregea, soberania politikoa edo gobernua bere gain hartzen duena.

Nafarroak Hegoalderanzko hedadura bukatua du, musulmandarrei lurra erre-konskistatu ondoren. Horrenbestez, hedadura bukatua, pirinio aldeko erresuma txikia da, auzolagun handi eta indartsuei aurre egin behar diena, independentziari euste aldera: Frantzia, Aragoa eta Gaztela. Santiago-bidearen

urte dizdiratsuak dira: hura errones bidea zen, Europarekiko merkataritza eta elkartrukaketarako bidea, gure historian modu erabakigarrian eragin zuena.

Iruñea, Lizarra, Tuter, Zangoza, Erriberri eta Baxenafarroako merindadeen artean banatutako 12.000 km²ko luze zabalera izanik, Nafarroak mugak zehazten ditu, forua finkatzen du, Gorteak eratzen ditu, eta, erregearen eta erresumaren arteko harremanak ezartzen ditu, baita bakoitzaren eskumenak ere.

Antso VII.a Azkarra, hil zenetik, Nafarroako tronua Frantziako dinastien esku geldituko da -Txanpaña, Kapeto, Evreux, Foix eta Labrit-. Errege hauek kanpoaldeko politika lotzen dute euren agindupeko lurrekin. Hala ere, zenbait arotan, Evreux Etxeko Karlos III.a Noblearen erregealdian bezala, erresuma errotu egin zen.

Garai hartan, Nafarroa zen, Gaztela, Aragoa, Portugal eta Granadarekin batera, pluraltasun espainola osatzen zuen “bost erreinuetariko” bat.

Hauxe da Nafarroako mailarik gorena erresuma independente gisa.



*“Antso III a Handiaren Testamentua”
margolanaren ñabardura, Alejandro
Ferranek egin. Nafarroako Jauregia.*

1512an, Nafarroa Gaztelako Koroan sartu zen, erresuma izateari utzi gabe eta foru guztiak, oso osorik, gordeta.

Karlos V.aren arma inperialak, Nafarroako armarrria barne hartzen dutenak.



NAFARROAKO BATASUNA GAZTELAREKIN

XVI. mendearen hasmentan, Nafarroan, elkarren artean borrokan ari ziren bi noblezia-bando, suminak hartuta. Bi bando horiek sortu ziren Vianako Printzearen garaian, aurreko mendearen erdiko aldean (1450). Alde batetik, beaumontarrak zeuden, Beaumonteko Luisek, hots, Leringo Konteak gidaturik. Hauek ez zuten izkutatzen Fernando Katolikoaren aldekoak zirenik. Beste alde batetik, Agramondarrak zeuden, eta hauek nahiago zuten Nafarroan erreinatzin ari zen dinastia frantziarra (Foix-Labrit). Hauek, beti ere, hasieran Aragoako Joan II.aren alde jokatu zuten, errege horrek bere seme Karlos, hots, Vianako Printze ospetsua, erregetzat aitortu nahi ez izan arren. Agramondarren eta Beaumontarren arteko borrokak erresuma hondatu eta, oroz gain, nafar herria pobretu zuen.

Nafarroa ateka zailean zegoen, bi Erregetza boteretsuen artean: frantziarra eta espainola. Garai hartan, Errege Katolikoaren ospea oso handia zen Kristandadean, batetik, lortu zutelako errekonkista bururaino eramatea, Granada hartuz, jakina, eta, bestetik, Amerika aurkitu zelako, hori guztia 1492an. Espainiako Erregetza borrokan ari zen bere nagusitasuna Europan mantentzeko, Italian, bereziki, non Frantziarekin ari baitzen lehian.

Aisa da ulertzeko, Nafarroak bere neutraltasuna mantentzen ez bazuen eta Frantziaren alde jokatzin bazuen, Gaztela eta Aragoa erabat mehatxaturik zeudela, ez zutelako Pirineoen defentsa naturala. Beste alde batetik, Nafarroak Errege Katolikoekin elkar hartzen bazuen, Frantziak etxe barrenean edukiko zuen etsaia. Izan ere, nafar erregeek agindupeko lurbazter zabalak zituzten Frantzia aldean, eta, horregatik nafar erregeek basailutza egiten zieten hango erregeei.

1512an Liga Sandua sortu zen, Julio II.a Aita Sanduak sustaturik, Frantziako Errege Luis XII.aren aurka borrokatzeko. Aita Sanduak herexetzat eta zismatikotzat jo zuen Frantziako errege hura, laguntza emateagatik bere aurka altxatu ziren kardinal frantziar batzuei. Aita Santuarekin bat egin zuten Fernando Katolikoak, Ingalaterrak eta Veneziak.

Gorabehera horietan, Fernando Katolikoak nafar erregeei eskatu zien Liga Santuarekin bat egin zezaten edo hasteko zorian zegoen gatazkan neutral izan zitezten.

Hala ere, Luis XII.ak presio egin zien nafar erregeei, mehatxu egin baitzien Frantzia aldeko lur jabetza zabal horiek kenduko zizkiela, Biarnoa, batez ere, eta Foix eta Labrit Etxekoen esku zeuden beste lur batzuk ere bai. Lur jabe-

tza haiek guztiak aitortuko zizkieten promesapean, beste pribilegio ekonomiko garrantzitsu batzuekin batera, Nafarroako erregeek Bloisko Tratadua izenpetu zuten 1512ko uztailaren 18an. Horren bitartez, nafar erregeak Frantziako erregearen aliatu bihurtu ziren (adiskideen adiskide eta etsaien etsai) eta konpromezua hartu zuten hari laguntzeko, kanpotik eraso eginez gero.

Hori aitzakiatzat hartuta, Fernando Katolikoak erresuma armaz hartu zuen. Albako Dukea, Felipe de Acuña gidaturik, armada batek Nafarroa bereganatu zuen. Armada hori, hein handian, gipuzkoarrek, bizkaitarrek, gipuzkoarrek eta arabarrek osaturik zegoen, Gaztelako Koroakoak baitziren. Halaber, armada hartan partaide izan ziren Leringo Kontearen agindupeko beaumontarren bandoko nafarrak.

Egun gutxitan, ia inork ere armada hari gogor egin gabe, Nafarroa konkistatu zuten. 1512ko uztailaren 25ean, Iruñeak kapitulatu zuen, baldintza gisa ezarritik Foruak aintzat hartuak izan zirela, eta, subditutzat hartuko zituztela eta ez “basailutzat”. Albako Dukeak horretarako konpromezua hartu zuen Fernando Katolikoaren izenean. Errege -erregin Katalina eta Joan, Frantzia aldean zituzten agindupeko lurretan babestu ziren. Han, armada bat erreklutatu zuten Luis XII.aren laguntzarekin, Nafarroa berreskuratzeko; garaituak izan ziren, ordea. Ondoko urteetan, zenbait gogorraldi gora behera, Nafarroako Ibar eta Hiri guztiek, piskana piskana, errege Fernandoren aldeko zina egin zuten.

Julio II.a Aita Santuak konkista zilegitzat jo zuen. Izan ere, pontifize -bulda batzuen bitartez, nafar errege -erreginei euren erresuma kendu zien, eta, herexetzat eta zismatikotzat jo zituen Luis XII.ari laguntza emateagatik. Halaber, Fernando Katolikoari ahalmena eman zion erresuma hura hartzeko eta bere oinordekoei emateko.



SEIGARRIN MERINDADEA ETA FRANTZIAKO ETA NAFARROAKO ERREGEAK

1530ean, Karlos enperadoreak bere kasa utzi zuen seigarren Merindadea edo Ultrapuertos deritzaiena. Izan ere, ezin zuen defenditu frantziarren aurka, Pirinioz bestaldean zegoelako. Merindade horretaz Katalina eta Juanen oinordekoak jabetu ziren, Nafarroako errege-erregin titulua eramaten segitu zutenak. 1594an, Nafarroako Enrike III.a katolikoa bihurtu zen (“Meza ere entzunen nuke Parisengatik”) Frantziako Errege aldarrika zezaten. Haren oinordekoak, Luis XIII.ak, Nafarroa Beherea sartu zuen Frantziako Koroan, 1620an; 1789an, Frantziako Iraultza gertatuz geroztik, Pirinio Atlantikoetako Departamentuan sartu zuten eta galdu egin zituen bere foru eta erakunde zaharrak.



Iruñeko Errege Jauregia.

Nafarroako Gaztelarekin bat egiten zuen hitzarmenaren hitzak “Novísima Recopilación” delakoan (1735) bilduta daude. Honela, zehazki:

“Nafarroa Gaztelako Koroan sartu zen *equo-principal* batasun bidez (berdinetik berdiner). Bakoitzak bere izaera zaharrari eutsi zion, hala legetan nola lurraldetan eta gobernuan . Eta honela jarraitzen zaio: Erresuma hau, gainontzeko Erresumen eta Jaurerrien aldean, ezberdina eta berezia izanik, lurraldean, jurisdikzio eta epaileetan.....”.

Nafarroako Gorteen, 1513an bildurik, tartean Beaumontarrak nahiz Agramontarrak zeudela, Fernando Katolikoa hartu zuten berezko jaun eta erregetzat. Aurretik, erregeordeak, hau da, Comaresko Markesak Foruak zin egin zituen, eta, gisa horretan Nafarroako Monarkiaren hasierako hitzarmen konstituyente hura berritu zen.

1515ean, Errege Katolikoak, Burgosen bildutako Gaztelako Gorteen aitzinean, eta, Julio II.a Aita Sanduaren buldak arrazoitzat aipatuta, erabaki zuen Nafarroako Erresuma oinordetzan hartuko zutela, Gaztelako Koroan bere oinordeko izanen ziren haiek, eta, Nafarroa Gaztelarekin modu haustezi-nean bat eginik egonen zela, Foruak aintzat hartzeko konpromezu solemnearekin. Ordutik honat, Gaztelako erregeak Nafarroako erregeak ere izanen ziren. Dena dela, Nafarroak eusten zion “berez” Erresuma izateari. Izan ere, bere eraketa politikoa, soziala eta zibila zegoen bezalaxe gelditu zen.

1516an, Espainiako Karlos I.ak nafar foruak zin egin zituen. Gizon hori Alemaniako enperadore izanen zen geroago. Bada, foruak zin egiterkoan, erantsi zuen Nafarroa mantenduko zuela “berezko Erresuma” gisa.

Foixko Katalina eta Labriteko Joan errege-erreginen oinordekoek, beren aldetik, azkenean, Baxenafarroa mantendu zuten, baita Nafarroako errege-erregin titulua ere. Zenbaitetan, saiatu ziren euren erresuma galdua berreskuratzen, baina, egiazki, euren subditu izandakoek ez zieten lagundu, Baztango Amaiurreko gazteluaren erresistentzia bezalakoa izan ezik.

Ondoko hiru mendeetan (XVI, XVII eta XVIII), erresuma pake giroan bizi izan zen eta horrek on egin zion. Izan ere, aurrera egin zuten nekazaritzak, merkataritzak eta arteek. Beste alde batetik, nafar aunitzek parte hartu zuten Espainiako Monarkiaren kanpoko aldeko ekintzetan, Ameriketara bereziki, eta goi-karguak erdietsi zituzten Administrazioan.

Nafarroa Gaztelako Koroan sartzeak ez zuen inolako eraldaketarik ekarri Erresumaren izaerari dagokionean. Dinastia aldaketa gertatu zen eta Nafarroak berriz ere bat egin zuen Espainiako erkidego naturalarekin, erkidego horretan beti partaide izana baitzen. Are gehiago, Erresumako Gorteak eta Diputazioa izugarri indartu ziren eta harritzekoa modukoa da zinez, erakunde horien bizkortasun handi handia, ez baitzen halakorik gertatzen Espainiako gainontzeko erresumetan, Gaztelan, batez ere, Gorteak ez ziren eta ia biltzen.

Nafarroa Gaztelan sartzeak -armen indarrez erabaki bazen ere- ez zuen Nafarroako Erresumaren akabera ekarri. Espainiako erregeek foruak zin egin zituzten eta aintzat hartu zuten nafar erregeen zenbaki-ordena. Gorteek bilerak egiten segitu zuten; Erresumako Diputazioa, Nafarroako biziraupena bermatzen zuen erakundea izatera iritsi zen.

NAFARROAKO FORUTASUNA BORBOIEN ESTATU ESPAINOLEAN

XVI eta XVII. mendeetan barrena (Austria etxearen erregealdietan), Espainiako Monarkia zenbait erresumak osatzen zuten. Denak zeuden erresumarik handienaren eta bizilagun gehien zituenaren inguruan bilduta, hots, Gaztelaren inguruan, eta, bakoitzak bere bizitzari eusten zion. Nafarroari dagokionez, oro har, esan daiteke aintzat hartu zela bere lege-antolamendu forala.

XVIII. mendean, ordea, Espainiako tronura Borboien dinastia iristerakoan, ministroak lanean hasten dira Frantziari begira, hau da, gogoan hartzen dute Frantziako administrazioaren zentralismoa eta politikamoldearen absolutismoa. Ilustrazioaren garaia da.

Ondorengotza gerran zehar (1700 - 1714) Nafarroak Felipe V.ari eman zion sostengua. Huraxe izan zen Espainiako lehen errege borboia. Eta haren alde jokatu izana lagungarri gertatu zen -seguru aski- Nafarroak, oso osorik, bere

NOAINGO BATAILA, SAN IGNAZIO ETA SAN FRANTZISKO XABIER

1521ean, Juan eta Katalinaren seme Enrike II.a berriz ere saiatu zen erresuma berreskuratzen, baina saialdi hark ere porrot egin zuen. Izan ere, Frantziako armada -okupaziozko armada gisa jokatu zuena- garaitua izan zen Noaingo batailan. Aipatu beharra dago, Iruñeko setioan, gazteluaren defentsan Loiolako Inazio zauritu zutela; hori gertatuta, erabaki zuen armen karrera uztea eta Jesusen Konpainia findatu zuen. Horretarako, besteak beste, Xabierko Frantziskoren laguntza gogotsua izan zuen. Xabierko Frantzisko izan zen Nafarroako Errege Kontseiluko presidente izandakoaren semea, eta, Katalina eta Juan errege erreginei fidel mantendu zitzaizena.

Cadizko Konstituzioaren aplikazioak, Nafarroako erresumaren eta bere erakundeen desagerketa zekarren. Horregatik, nafar errealistak Foruen defentsan altxatu ziren.

foru erakundeak gorde zitzen. Hala ere, zentralismoa gora zihoan, eta, horrela, Aragoako Koroako foruak indargabetu zituzten (Nueva Plantako Dekretuak deritzaien bidez). Horrenbestez, gainontzeko espainiarrek, Nafarroako foru araubidea salbuespen moduan ikusten zuten, erregeak emandako “pribilegioa” zelakoan. Horregatik, Nafarroa defentsiban jarri behar izan zen Estatu berriaren organismo zentralen aurrean.

XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. Mendearen hasieran, iraultza liberalen aroa hasiko da Europan eta horrek, zuzenean edo zeharka, Nafarroan bost gerra kontrairaultzaile eragin zituen eragin zituenez:

1. Konbentzioaren Gerra (1793 - 1795), Frantzia iraultzailearen aurka.
2. Espainiako Independentzia Gerra (1808 - 1814), Napoleonen aurka.
3. Gerra Errealista (1822 - 1823), errealisten eta liberalen arteko gerra zibila.
4. Lehen Karlistaldia (1833 - 1839).
5. Hirugarren Karlistaldia (1872 - 1876).

Hasieratik beretik, (**Cadizko Konstituzioa**, 1812koa) Espainiako liberalismoak uste izan zuen ekonomiaren eta gizartearen aurrerabidea egiten bazen, ezinbestekoa zela Estatua zentralizatzea eta lurralde osoan lege berberak ezartzea (bateratze legea). Hori guztia alor politikoan askatasuna eta berdintasuna erdiesteko.

Espainia osoan, Cadizko Konstituzioaren aplikazio bateratuaren ondorioa zen Nafarroa desagertzen zela erresuma gisa eta berezko erakundeak kenduko zituztela: Gorteak, Erresumako Diputazioa eta Errege Kontseilua. Nafarroako Erresuma askatasungunea zen borboien absolutismoaren barrenean, Nafarroako Foruek eta Legeek mugatzen baitzuten erregearen agintea. Baina, egiazki, erresuma horren egitura politikoa –gizarte klaseen edo estamentuen zatiketaren oinarritua– bateraezina zen bote-rearen kontzepzio iraultzailearekin eta liberalen printzipio berriekin.

Horregatik, izan zen konstituzioaren alde jokatu zuen nafarrik. –esate baterako, Yanguas y Miranda tuterarra, ia hogei eta hamar urtez Diputazioko Idazkari izan zena (1836-1863) “fuerismo liberalaren” definitzailea– Nafar hauen iritziz, Cadizko Konstituzioak ziurtatzen zituen askatasuna eta berdintasun politikoa balore handiagoak zirela Aintzinako Erregimenean sustraitutako nafar Foruak baino, edo, balore horiek hobeki bermatzen ziren Konstituzioaren bidez, behintzat.

Fernando VII.aren erretratua, Francisco de Goyak egina





Lehen Karlistaldiko irudia. Don Karlos eta Isabelen arteko ondorengotza gerra izan zen hura. Lehen Fernando VII.aren anaia zen eta bestea, berriz, alaba, erregin izatera iritsi zena.

Iraultza liberala, ordea, ez zuten pozez hartu nafar gehienek. Alde horretatik, zer esana izan zuen nafar herriaren betiko erlijiotasunak, eta, nafarrek uste zuten ideia liberalak mehatxugarriak zirela, ideia horien ezaugarria baitzen apaizen aurkako sentimendu handia.

Fernando VII.a 1833an hil zen, eta, errege horren heriotzak ekarri zuen ondorengotzari buruzko auziak are gehiago nahastu zituen gauzak. Eta horrela, liberelek hildako erregearen alaba Isabel II.a onartzen zuten erregintzat, eta, arrazoi gisa esaten zuten Karlos IV.ak Felipe V.aren lege salikoa (emakumezkoei erregin izatea galarazten ziena) baliogabetu zuela. Bizkitartean, kontrairaultzaileek –hasieran errealistak izena zuten eta ondoren karlistak– errege zilegitzat jo zuten Don Karlos infantea –Karlos V.a– Fernando VII.aren anaia, alegia.

Karlistek esaten zuten erlijioaren eta erregetzaren zilegitasuna defenditzen zutela. Liberelek edo isabelinoek esaten zuten askatasuna defenditzen zutela. Espainia bi pusketan hautsi zen eta gerra luze bezain odoltsua gertatu zen, eta, gerratoki nagusietako bat Nafarroa izan zen hala nola Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintziak.

Karlistaldian, araubide liberala, piskana piskana, ezarri zen Nafarroan, 1836an Cadizko Konstituzioaren errestituzioaren ondotik, batez ere. Horri beste Konstituzio bat jarraiki zitzaion, 1837koa, zehazki, eite liberala zuena. Horrek, Nafarroako erakundeak akabera zekarren, eta, horregatik, karlistek, erlijioaz eta tronuz landara, foruen babesa ere erantsi zioten euren sinismenari. Karlistek irabazi izan balute, Nafarroako Erresumak bere horretan eutsiko ziokeen bere funtsari, Fernando VII.a. hil baino lehenago zegoen moduan. Aitzitik, liberelek irabazita, Erresuma desagertuko litzateke eta Nafarroa Erregetzako probintzia hutsa izanen litzateke.

DON

ISABEL II

Por la gracia de Dios, y por la Constitución de la Monarquía española, Reina de las Españas, y en su Real nombre D. Balduino Espartero, Duque de la Victoria y de Morella, Regente del Reino; a todos los que la presente vieren y entendieren, sabed: que las Cortes han decretado, y NOS sancionamos lo siguiente:



1841eko LEGE ITUNDUA

1833 - 1840ko gerra zibila karlistek galdu zuten. Nafarroan liskarrak bukatu ziren Bergarako Hitzarmenari jarraiki (1839ko abuztuaren 31). Komenio horrek ez zuen inongo kontzesio politikorik Don Karlos erregegaiarentzat. Baina, Hitzarmenak Foruen aipamena egiten zuen, Isabelen aldeko Espartero generalak bere konpromezua agertzen baitzuen, Gobernuari haxe gomendatzeko, hots, aurkeztu zezala Nafarroako Foruen eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Probintzien Foruen berrespenerako edo aldaketarako lege-proiektu bat.

Gobernuak halaxe egin zuen, eta 1839ko urriaren 25ean Foruak berresten zituen Lege bat aldarrikatu zen, batasun konstituzionalari kalte egin gabe. Zer ote zen batasun konstituzionala? Errege bakar bat eta Gorte bakar bat izatea Espainia osorako.

Orduantxe, hasi zen nafar liberalen aldia. Konstituzioaren aldekoak ziren, baina, baita Foru ekonomiko eta administratiboen aldekoak ere, hein batean. Eta 1839ko Legeak aurreikusten zuenez elkarriketak izanen zirela Nafarroarekin eta beste beste hiru Probintziekin, Foruak egokitzeko batasun konstituzionalaren eskakizunetara, Nafarroako Diputazioak batzorde bat igorri zuen Madrila, egokitzapen horri ekiteko mandatuarekin.

Diputazioak onartzen zuen erregeordea eta Erresumaren gainontzeko erakundeak kentzea. Ontzat jotzen zuen ondoko hau guztia: Nafarroa legeria orokorrera asimilatzea, bertako justizia auzitegiak kentzea eta Ebroko aduana Frantziako mugara eramatea. Nafar liberalen iritziz, Konstituzioak hobeki bermatzen zuen askatasun politikoa, Foru zaharrek baino. Ez zuten berriz ere

1841eko Lege Hitzartuaren promulgazioarekin, ezarri zen "foru erregimena" deitu izan zaiona, hau da, Nafarroak uko egiten dio berez erresuma izateari eta ordainez administrazio mailako autonomia zabal zabala lortzen du.

Lehen Karlistaldiko irudiak



Lege Hitzartuaren oroitzapenezko margolana, Nafarroako Jauregian dagoena.

ikusi nahi Iruñeko apezpikua edo edozein nafar abate Gorteburu edo Diputazioburu izatea. Era berean, ez zuten nahi nobleek, noble izate hutsagatik, Gortetan militarren edo nobleziaren besoa eratzerik. Eta herri ordezkaritzari dagokionean, hiri eta hiribildu gutxi batzuek besterik ez zuten prokuradoreak igortzeko eskubidea, eta, nafar liberalak ere ez zetozen horrekin bat.

Baina era berean, ez zioten uko egin nahi, Nafarroak bere burua gobernatzeko zuen eskubideari ekonomian eta administrazioan. Horrela, bada, hitzarmena gertatu zen, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduaren aldarrikapena ekarri zuen hitzarmena. Lege horrek ezartzen du “foru erregimena” deitu izan zaiona: uko egiten zaio, berez, erresuma izateari, autonomia zabal zabala lortzearen ordainez.

Hala eta guztiz ere, elkarriketak ez ziren samurrak gertatu. Halako batean, 1840ko uztailaren 27an, Diputazioak gogora ekartzen du “Nafarroak bat egin zuela Gaztelarekin zenbait hitzarmen zirela medio eta ezin direla aldatu elkarren arteko adostasunik ez badago”. Hori esanik, Diputazioak mehatxu egiten du, hots, batasuna hautsiko du bere baldintzak aintzat hartu ezean. Gobernua, ordea, aldatzen da, Espartero iristen baita agintera eta, azkenean, behin-betiko akordioa egiten dute: lehendabizi akordio hori, Gobernuarekin hizketan ari ziren nafar ordezkariak sinatzen dute eta ondoren Diputazioak berretsiko du 1840ko abenduaren 10ean.

Hitzarmena barne hartzen duen Lege proiektua Gortetan tramitatzen zen bitartean, nafar diputatu batek emendakin bat aurkeztu zuen horri buruz, baina erantzun eta esan zitzaion ez zitekeela inola ere atzera egin, Gobernuak Diputazioarekin eta honen ordezkariekin egindako hitzarmen solemnearen gainean. Horrek esan nahi du, 1841eko Legea Lege itundua dela, esan nahi baita, Nafarroaren eta Estatuaren arteko hitzarmenaren emaitza da.

26 artikulutan, Lege Itunduak ondoko hau arautzen zuen: gobernu politiko eta militarra, justizia administrazioa, udalak, mendi eta bazkalekuak, soldadungoa, gurtza eta elizjendea eta Ogasun kontuak. Diputazio berriak –zeina denboraren joanean “Foru Diputazioa” deitu baitzitzaion– bere gain hartzen zituen, lehenago Erresumako Diputazioak eta Errege Kontseiluak zituzten eginkizunak, Nafarroako eta Udalen barne gobernuari dagokionez.

Hortaz landara, hitzartu ere hitzartu zen, aurrerantzean, Nafarroan Estatuaren karga orokorretan partaide izanen zela, ordainketa bakar zuzen baten bidez



*Borboien monarkiako
armarria, 1735 aldean tailatua.*



(1.800.000 erreal) eta Estatuak bere gain hartuko zuela Erresuma zaharraren zor publikoa, Nafarroako Ogasuna itotzen ari zena. Horrek garrantzia handia izan zuen, kontribuzio zuzenaren bilketa Diputazioaren esku geratzen baitzen, eta, Diputazioak arauak emanen zituelako bilketa hori egiteko; horra, nola sortu zen Nafarroako zerga-erregimena. Urteak joan, urteak etorri, kontribuzioaren zenbatekoa zaharkitua gelditua zenez, beharrezkoa izan zen berriz ere Estatuarekin hitzarmena egitea. Eta horrela sortu ziren Nafarroa eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoak. Hitzarmen horretan erabakitzen da zenbateko dirutza emanen dion Nafarroak Estatuari eta ezartzen dira, Nafarroako zerga-erregimena Estatukoarekin harmonizatzen duten arauak. Lehendabiziko hitzarmen ekonomikoa 1877koa da, eta, hasierako horri 1927, 1941, 1969 eta 1990ekoa jarraiki zitzaizkion. Azken hori aldatu berri dute, 1997ko urriaren 28an sinatutako hitzarmen berriaren bitartez.

Lege Itundua aldarrikatu zenetik, Diputazioak gobernu bati dagozkion eginkizunak betetzen ditu. Izan ere, bere aurrekontuak onartzen ditu inori kontuak eman gabe, xede horretarako Foru Kontseilua, 1898an, eratzen den arte. Bideez eta errepideez arduratzen da, mendien ordenazioaz eta zainketaz, eta, piskana piskana, Administrazio modernoari dagozkion zerbitzuak hartzen ditu bere gain: ospitaleak, hezkuntza, kultura, ondasun historiko-artistikoaren babesa, industriaren garapena, nekazaritzaren eta abeltzantzaren sustapena, e.a.

LEGE HITZARTUAK NAFARROA ESPAINIAKO GAINONTZEKO LURRALDEKIN PAREKATU ZUEN ONDOKO ALDERDIOTAN:

- | | | |
|--|--|---|
| 1. Gobernu militarrean, Gobernuak izendatuko zuena; hortaz landara, sartzen da nafarrek soldadungoa egiteko betebeharra beste probintzietan bezalaxe (derrigorrezko soldadungoa) | 3. Udalen hautaketan. | 6. Ikuspuntu ekonomikotik, merkatu bakar bat ezartzen da, Aduanak Pirinioetara eramaten baitira. |
| 2. Justizia administrazioan. Lurralde Entzutegia ezartzen da eta epaileek eta auzitegiek Espainiako lege orokorrak (kodeak) ezarriko zituzten, Zuzenbide Zibila kenduta. | 4. Probintzia Diputazioan, Nafarroako antolaketa ezberdina baldin bada ere. Izan ere, zazpi deputatuz osaturik dago, Merindade historikoei jarraiki. | 7. Tabakoa eta gatzaren salmentan, Estatuak beretzat (modu estankoa) gordetzen duena, hala nola bolboraren eta sufreaken salmentan. |
| | 5. Gobernuak izendatzen duen goi agintari politikoan, Gobernuaren ordezkari eta bere erabakien bete-arazle gisa (Gobernari Zibila). | |

LEGE ITUNDUARI BURUZKO KONTSIDERAZIOAK

Lege Itundu zaharrari esker, Nafarroa behar bezalako baldintzetan egon zen 1978ko Konstituzioak eraturako autonomia politikoa asumitzeko. Azpimarra dezagun, Konstituzio hori izan dela, Espainiako Konstituzio guztien artean, lehendabiziko aldiz eskubide historiko foralak babestuak eta aintzat hartuak izan behar direla esaten duena. Izan ere, testu horrek aitortu egiten du, Espainia osatzen duten nazionalitateen eta erregioen autonomiarako eskubidea.

Nafarroak bizitasun eta indar bereziaz bizi izan zuen liberalen eta karlisten arteko liskarra, Espainiako gainontzeko tokietan bezala edo are bizitasun handiagoz. Liberalen garaipenak Erresumaren galera ekarri zuen. Estu estuki, ikuspuntu juridikotik begiratuta, esan liteke Lege Itundua baliogabeko hitzarmena dela, nafar Gorteek ez baitzuten berretsi. Baina, ondorio hori sinplistegia da. Nafar Gorte haiek estamentuez osaturik zeuden. Horregatik, nekez onar zezaketen, Cadizko Konstituzioari datxekzion askatasun politikoan onarpena ekartzen zuen tamainako aldaketa politikorik. Beste alde batek, erresumak erregearekin egiten zuen Foruen gaineko hitzarmena, baina jadanik erregeak ez zuen soberaniarik bere baitarik, soberania nazioaren esku baitzegoen –eta nafarrak nazio horretan partaide ziren– Iraultza Liberalaren garaipenari jarraiki.

Lege Hitzartuaren ondotik, Nafarroak erresuma izateari utzi eta probintzia bihurtu zen. Haatik, bere autonomiari eutsi zion, hein handi batean.

Zorrozki epaitu ditzakegu, egungo pentsamoldea kontuan hartuta, Lege Itundua negoziatu zuten nafar ordezkariak. Baina, aitortu behar zaie, izpitu foralaren zati funtsezko bat gorde izanaren meritua. Ez dugu ahaztu behar, Gorteek eta Erresumako Diputazioak oso eginkizun garrantzitsua bazuten ere, erregeordea eta Errege-Kontseilua zirela egiazki Nafarroan gobernatzen zutenak, eta Errege-Kontseilu hori erregeordeak izendatutako funtzionarioez osaturik zegoen. Nafar liberalek transakzio edo truke bat egin zuten. Uko egin zioten Erresuma izateari Nafarroako gobernu bermatzearen orde. Eta nafarrek, arian arian, egoera berria onartu zuten, galdutako erakundeek gaineko sentimendua eduki arren. 1918an, foru erreintegrazioarako saio bat izan zen, baina porrot egin zuen Espainian ezegonkortasun politiko nabarmena zegoelako. 1982ra arte itxoin beharko zen Forua Hobetzeko hitzarmen berria egin artean.

Behar bada, 1841 eta 1982 arteko denboraldi hartako gauzarik garrantzitsuenak izan zen foru araubideak pizturik izan zuela foru askatasunenugarra, eta, bitartean, Espainiako gainerako tokietan bazirudien betirako itzalia zela. Eta esaten dugu “bazirudiela”, Espainiako gainontzeko herriek ere ikusten zutelako sistema zentralistak kalte egiten ziela. Horren seinale, 1997an, erregimen demokratikoa ezartzen denean, horiek denek ezinbestekotzat jotzen dute aintzat hartzea autonomiarako duten eskubidea.



NAFARROAKO ERAKUNDE PUBLIKOEN BILAKAERA

ERRESUMAKO ERAKUNDEAK 1841. ARTE

Subiranua

Erregea. Mendetan barrena, erregearen ukaezinezko zeregina zen erkidegoa gobernatzea eta zuzentzea, ordena mantenduz eta justizia eginez guztien onerako. Erregeak bazuen agintea, baina erresumak, honen ordezkariak eta honen foruek mugatutako agintea zen hura. Alde horretatik, erregearen figura bereiziezina zen hitzarmen edo elkarrekiko zinaren ideiatik.

Erregeordea. Erregearen ordezkoa zen erregea Nafarroan bizi ez zenean. Gaztelako Koroan sartu zenetik figura giltzarria izan zen, baina jadanik aurreko denboretan ere lugartenienterik edo gobernaririk izan zen, antzeko egitekoak zituztenak.

Erresumako Auzitegiak

Errege Kontseilua: Hasieran, auzitegi hau nahasten zen erregearen gortearrekin edota erregearengandik hurbilen zeuden kontseilariekin. Aurrerago, Kontseiluak, erregeak hautaturik beti, administrazio eta justizia mailako eginkizunak zituen, hots, Nafarroako Auzitegi Gorena bezalakoa zen. Kontseilu honen egoitza Iruñean egon zen beti, egungo Kontseilu Plazaren ondoan. Gaztelarekiko batasuna gertatu zenetik, bere garrantziak gora egin zuen, huraxe baitzen erregeordearen ondoan zegoen eta erregeordeari kontseiluak ematen zizkion organua.

Gorte Nagusia. Auzitegi honen gorengo maila Erdi Aroan gertatu zen. Zenbaitetan, nahastu egin da Errege Kontseiluarekin, baina Gorte Nagusi honek ez zuen beste hark zuen adinako maila eta eginkizun judizialak besterik ez zituen. Gorte Nagusiaren azpitik ohiko Alkateak ziren justizia emateaz arduratzen zirenak.

Errege Kontuen Ganbara. Auzitegi honek eginkizun delikatuak zuen, hots, zergak bildu eta Erresumako Ogasunaren administrazioa egiten zuen. Hala-ber, txanponak egiten zituen.





Nafarroako Gorteen Bilkura

Erresumako Ordezkaritza-Organuak

Gorteak: Erresumak zeregin politikoetan parte hartzeko erakundea zen. Gortek ahalmen legegilea betetzen zuten erregearekin batera eta kontrolatzen zuten erregeordearen eta honen ordezkarien jokaera, jokaera hori, aldi oroz, Nafarroako Foruen eta legeen menpekoa izan zedin. Era berean, erakunde honek zehazten zuen “foru donatiboaren” zenbatekoa, hau da, Koroari, borondatez, ematen zitzaion dirua. Hiru beso zituen: elizarena (Iruñeko apezpikua eta monasterioetako abateak), nobleziarena edo militarra eta Gorteetan jarlekua izateko eskubidea zuten unibertsitate edo herriena. Hiru besoen onspena behar zen, legeen onarpenerako. Gorteen azkeneko bilkura 1829an gertatu zen eta kendu zituzten 1839ko urriaren 25eko Legearen aplikazioari jarraiki. Orduan, Gorteen eginkizunak, Foru Diputazioak eta Espainiako Gorte Nagusiek gain hartu zituzten. 1982ko Foruaren Amejoramentuak berezarri ditu izen honekin: Nafarroako Gorteak edo Parlamentua eta erakunde honen hautaketa demokratizatu du. Izan ere, jadanik ez da besoez edo estamentuez osatua, baizik eta hemezortzi urtez gorako pertsona guztien sufragio unibertsalaren bidez hautatzen da.

Erresumako Diputazioa. XVI. mendean, Gorteen batzorde iraunkorrari instituzionalizazioaren tankera ematen zaio. Helburua hauxe zen: beharrezkoa

zen Gorteen eginkizunak aurrera eramatea, Gorteak bilduta ez zeuden bitartean. Batez ere, begiratu beharra zegoen ea erregearen aginteak aintzat hartzen ote zituen Erresumako Foruak eta legeak. Zazpi diputatuz osaturik zegoen, eta Diputazioburu izaten zen duintasun handieneko kidea. Noblezia-
ren besoak bi deputatu zituen eta unibertsitatea edo herrienak, berriz, lau. XVIII. mendean, Gorteen manatuta, Erresumako Diputazioak zeregin administratibo batzuk hartzen ditu bere gain: bideak egin, mendien zainketa, hezkuntzaren sustapena, e.a. 1836an, Cadizko Konstituzioaren errestituzioaren ondotik, Erresumako Diputazioa kendu eta Probintziako Diputazioa ezartzen dute haren ordeiz. 1836tik 1840ra artean, Batzorde gestora batek hartzen du haren lekua.



FORU ERAKUNDEAK 1841 eta 1982 BITARTEAN.

Lege Itunduaren ondotik, Nafarroan gauza aunitz aldatu ziren. Organu judizialak aldatu ziren eta Erresumako auzitegi guztiak disolbatu zituzten: Errege Kontseilua, Gorte Nagusia eta Kontuen Ganbara. Horien ordeiz, ohiko auzitegiak ezarri zituzten, Espainian zuten antoketa nagusiari jarraiki. Beste alde batetik, Nafarroako Gorteen eta Erresumako Diputazioaren eskumenak Espainiako Gorte Nagusien eta Foru Diputazio berriaren esku geratu ziren.

Buru Politikoak edo Gobernariak: Lege Itunduaren ondotik, Nafarroan Erregeordearen agintea Buru politikoek edo Gobernari Zibilek eta Militarrek hartu zuten, hots, horiek ziren, hemen Nafarroan, Erregearen edo Estatuburuaren eta Nazioaren Gobernuaren ordezkariak zutenak.

Foru Diputazioa. 1839ko azaroaren 16ko errege dekretu bidez eratua, ezabatutako erakundeen ahalmen guztiak bere gain hartu zituen, ekonomia eta administrazio mailako erregimenari dagokionean. Zazpi diputatuz osatua zegoen, Merindadez Merindade hautatuak. Ez zen Espainiako gainontzeko diputazioen antzeko Probintziako Diputazio bat izan. Horren froga da “Guztiz Goren” tratamendua izan zuela eta, 1930etik goiti, “foral” kalifikazio ofiziala. Legearen arabera, Diputazioko presidentea Gobernari Zibilak izan behar bazuen ere, egiazki deputaturik adinekoenak bere gain hartu zuen beti ordezkariarik gorena, presidente orde gisa. Bere eginkizunak aurrera eramateko, Foru Diputazioak organu delegatuak sortu zituen, zenbait unetan, hots,

Nafar erakundeak egokitu dira, gure erresuma zaharrak, bere historia luzean barrena, izan dituen egoeretara. Erakunde batzuk desagertu dira. Beste berri batzuek izen zaharrak berreskuratu dituzte. Baina beti gorde dira Nafarroako ondare instituzional aberatsa eta foru erregimenaren bereizitasunak.


(Argazkian Kontuen Ganbara, erakunde baten jarraitasunaren adibidea)

Dependentziak edo Zuzendaritzak (Udal Administrazioarena, Nekazaritza eta Abeltzantzarena, Bideena, Hezkuntzarena, Ogasunarena, e.a.)

Foru Kontseilu Administratiboa. 1898an eratu zen Diputazioaren organu kontsultibo eta aholku emale gisa, eta, nola edo hala, Gorte zaharrak ordezkatzeko asmoarekin. 1925eko udal Komeniotik aurrera, organu honen osaketa berritzen da eta sarbidea ematen zaie hala Udaletako ordezkari (37 kontseilarien gehiengoa zuten) nola beste indar ergile batzuetakoei (sindikatuak, elkargo profesionalak, foru deputatu ohiak, unibertsitateak, e.a.). 1925etik aitzina, Kontseiluak, Diputazioak udal gaietan emandako arauak onetsi behar zituen. 1979an, Foru Parlamentua ezarri zen Kontseilu horren ordezkari. Parlamentua sortu zen, 1979ko urtarrilaren 25eko Errege Dekretu Itunduari jarraiki, eta, hasiera ematen dio Foruaren amehorramenduaren prozesuari.

Administrazio Auzitegia. 1925eko udal Komenioan aurreikusia, 1964an eratu zen, hiritarrek udal akordioen aurka ezar zitzaizketen altxatze elegiteak ebazteko. Ordura arte, Foru Diputazioak berak ebazten zituen afera horiek.

Nafarroako Diputazioaren Jauregia.



KONTRAFORUAK

Historian barrena, araubide hitzartuak zenbait eraso izan ditu. Zenbaitetan, Koroa edo Estatuko funtzionariak saiatzen ziren Foru zuzenbidea saihesten, erasotzen edo bortxatzen. Halakoetan, Diputazioa izan da kontraforua salatu duen erakundea.

**Erregeak edo funtzionarioek
Nafarroako Foru
Zuzenbidearen edozein zatiri
egindako arau-hauste oro,
horixe da kontraforua.**

1515etik 1812ra.

“Aintzinako Erregimena” deritzaionean, Gaztelako Koroan sartzen denetik 1841^a artera doana, Gorteak edo Diputazioa –bilduta ez zeudenean– Foruen babesle bihurtzen dira eta erregeordeak edo honen funtzionarioek foruetan egin dezaketen edozein arau-hauste salatzen dute. Erregeordeak ustezko kontraforuak ez salatzeraz, kontraforu horiek sartzen ziren “agrabioen koaderno” batean. Diputazioak, koaderno hori Gorteetara eramaten zuen Gorteek kontraforuen erreparazioa eska zezaten. Erreparaziorik gertatzen ez zen bitartean, Gorteek ez zuten aztertzen eta erabakitzen. Erresumak erregeari ematen zion zerbitzua edo donatiboa, Nafarroako Koroaren gastuetarako.

1812tik 1841era

Transizio eta nahasmendu urteak dira. Foru araubideari egindako erasorik handienak 1812ko Konstituzioaren erregimen liberalen eskutik etorri ziren, saiatu baitziren foruak goitik behera ezabatzen (Cadizko Gorteak, Riegoren altxamendua). Hasiera batean, neurri horiek ez zuten Nafarroan eraginik izan, “Errekopilazio Berrian”, konpondu gabeko kontraforu bat gertatzen zenerako, ezarritako azken formula aplikatu baitzen: “obeditu bai baina bete ez”. 1836an, ordea, liberalek Cadizko Konstituzioa berezartzen dute eta egitez desagertuarazi egiten dituzte Nafarroako erakunde publikoak. Ez, ordea foru zuzenbide pribatua. Gerra bukatzean, eta karlistak galtzaile atera ondoren, 1841ko Lege Itunduak hitzarmen berria formulatu zuen, Nafarroako erregimen juridikoa aldarazi zuena.

ERRESUMAKO DIPUTAZIOA ETA KONTRAFORUAK

Erresumako Diputazioak 1630tik nahi zuen erregaren xedapenak begiratu eta ikusi ia xedapen horiek foruekin bat zetozen. Indartu nahi zuen 1576tik aurrera Errege Kontseiluak egiten zuen sobrekarta eskubidea.

1692an, Karlos II.aren eta Nafarroako V.aren erregealdian (1665 - 1700), Diputazioak aurrerapen txiki bat

erdietsi zuen Nafarroako Erresumako foruen eta interes orokorren defentsaren eginkizunean. Promugaltu zen Gorteetako Lege baten arabera, erregeak Diputazioari jakinarazi behar zion errege zedulen eta despataxuen berri, argitara eman baino lehen (sobrekarta eskubidea). Erresumako Diputazioaren interpretazioaren arabera, txosten hori derrigorrezkoa zen, baina

erregeak eta legeak informazioa besterik ez zioten eman nahi erresumari. Honela, Diputazioak ikusten bazuen zedularen batek forua hausten zuela, ordezkariak igor zitzakeen erregearengana eta Gorteetan kontraforua gertatu izanaren aldarrikapena egin zezakeen, baina ez zezakeen galarazi xedapena indarrean sartzea.

1841etik 1975era

Foru araubide berria poliki poliki errotzen da, zailtasun batzuk gora behera. Espainian Estatu zentralista ezarri zenez, laster hasi ziren botere zentralarekiko hika-mikak, botere zentralak bere xedapenak Nafarroan ezarri nahi baitzituen Espainiako beste edozein probintzian bezala eta ukatu egiten zuten Lege Itundua benetako hitzarmena zenik.

Diputazioak eutsi eta lortu egiten du, zenbait kontraforu gora behera, forutasunaren printzipioak mantentzea. Mailarik gorena 1893an gertatu zen, hots, Ogasun ministroa, Valentin Gamazo, saiatu zenean Nafarroako zerga mailako autonomia kentzen, hemen ere ezartzeko Estatuaren zergak. Nafarroak bat egin zuen Diputazioarekin, elkarrekin mugitu eta lortu zuen Forua bere horretan mantentzea, 1896an ministroak bere kargua utzi baitzuen. Kontraforu hari “Gamazada” deitu zitzaion eta haren oroimenetan, Iruñeko Foruen Monumentoa eraiki zen, herri harpidetzaren bidez.

Ordutik honat, foru araubidea indartu egingen da, Gobernuak ez baitu zalan-tzan jartzen foru araubidearen izaera hitzartua. Arras garrantzitsua izan zen 1925eko udal Komenioa, horretan oinarritu baita Nafarroako tokiko autonomia gaur egun arte. Beste alde batetik, urte haietan barrena, foru araubidearen defentsa, maiz, gatazka ideologikoekin eta erlijiosoekin nahastuta agertu zen, 1936ko uztailaren altxamenduan, bereziki.





Valentin Gamazo saiatu zen, 1893an, Nafarroako zerga mailako autonomia kentzen. Harez geroztik, herri aunitzetan foruei eskaini zieten herriko plaza nagusia.

Aurreko orrialdean, Tuterako Foruen Plaza; orrialde honetan Tafalla eta Vianako plazak.

1903an bukatu zen Iruñeko Foruen Oroitarria, herri harpidetzaz eraikia (hurrengo orrialdeetan).

Frankoren erregimenaren pean (1936 - 1975) kontraforu saialdi batzuk ere gertatzen dira, baina Diputazioak saihestu egiten ditu eta horrez gain, lortzen du bere autonomia maila handitzea. Horrenbestez, 1977ko errestituzio demokratikoa gertatzen denerako, Diputazioa benetako Gobernua izatera iritsi da, Nafarroako interes orokorrari dagokion gauza orotan eskuhartzen duena, bai bere jardura administratiboaren bitartez, bai Estatuarekin egindako komenio ugarien bitartez.

1975etik AURRERA

Nafarroan, demokraziarako transizioari akabera ematen zaio 1982ko abuztuaren 10eko Lege Organikoaren promulgazioaren bitartez, Nafarroako Foru Erautzaren Erreintegrazioa eta Amejoramendua arautzen duena, –komunzki, “Foruaren Amejoramendua” deitua– Estatuarekin hitzarmen berria formalizatzen duena. Amejoramenduak demokrazia parlamentarioa eratzen du, Gobernuak foru erautzaren mantenimendua begiratu behar du eta Parlamentuari jakinarazi behar dio gerta daitekeen edozein kontraforu. Haatik, kontuan hartu beharra dago nekez gerta daitekeela kontraforurik –hau da, Nafarroako eskumenei eraso egitea edo eskumenak ez ezagutzea–. Izan ere, Lege Itunduaren garaian gertatzen zenaz bestela, gaur egun hala Estatuak nola Foru Erkidegoak argi eta garbi zehaztuta dituzte euren ahalmenak eta eskumenak. Horrek ez du esan nahi gaztakarik izan ez daitekeenik, baina, gertatu ezker, lehendabizi Estatua-Nafarroa Lankidetzarako Batzordearen iritzipean jarri behar dira, izaera parekidea duena, eta, akordiorik ezean, bi Administrazioetariko bakoitzak Auzitegi Konstituzionalera jo dezake



Foruen Oroitarria


Duela ehun bat urte, Foruen aldeko “Gamazada” famatuaren ondoren, nafarrek erabaki zuten gertatuaren oroimena iraunaraztea, gertaera hura sekula ez ahanzteko. Horretarako, Iruñeko foruen oroitarri ederra eraiki zen eta, horregatik, Nafarroako herri eta hiri aunitzetan “Foruen Plaza” izena paratu zioten euren plaza nagusiari.

Oroitarri horren eraikuntzarako dirua atera zen “herri harpidetzaren” bidez. Horretarako, 25 xentimo eta 25 pezeta arteko donatiboak onartu ziren. Diputazioak hautatu zuen Iruñeko arkitekto Manuel Martinez de Ubagoren proiektua eta, altxatzen hasi baziren ere XIX. mendearen akaberan, lanak ez ziren 1903ra arte bukatu.

Hirugarren atala. Bigarren atalaren gainean, bada marmol gorritzko zutabe handi bat, kapitela zuria duena. Aurreko aldean, eraikuntzaren data agertzen da brontzez grabaturik: 1903. Oroitarriburuan, luzeran bost metro hartzen dituen brontzezko estatua dago, hots, andere handi bat da (Nafarroako sinboloa), eskuin eskuan kate hautsi bat daramana eta ezkerrekoan, berriz, Foru Legea.



Bigarren atala. Lehenbiziko atalaren bost zutabeen kapitelen gainean, badira bost eskultura handi, Lana, Bakea, Justizia, Autonomia eta Historiaren ikurrak direnak. Bigarren atal honek ere bost alde ditu eta zortzi metro gora da. Harri zuriz egina, Nafarroako eta Iruñeko armarrak grabaturik dauzka, elkarri lotuta, eta Sarasate Pasealekura begira dago. Gainerako aldeetan Tuter, Erriberri, Zangoza eta Lizarrako armarrak daude. Bost angeluetariko bakoitzean bada marmol gorritzko zutabe bana, brontzezko kapitela banarekin eta kapitela hauen gainean erlaitz bat bermatzen da. Erlaitz horrek irtenune angeluzuzenak ditu bost angeluetan.



Lehenbiziko atala. Barne plataformaren gainean altxatzen da oroitarriaren lehendabiziko oina, oinarri pentagonal duena. Zutabe lodiek angeluak sendotzen dituzte eta zutabe horiek dira Nafarroako bost merindadeak. Atal honek bost metro hartzen ditu luzeran eta gaineko aldean, erlaitzaren gainean, Gorteetan jarlekua zuten herrietako armarrak daude. Atal hau Almandozko harriz egina dago eta bost aurrealdeetan, brontzezko plaketan, oroitzapenezko bost testu grabatu ziren.



Oroitarriaren oinarria. Tafallako harriz egina, baditu bost eskalinata eta hauen artean, zutarrak sendotzen bermatuak, kateak zintzilik daude, Nafarroako armarraren kateak oroitarazten digutenak.

FORU ZUZENBIDEAREN BILDUMA

Nafarroako Foru Orokorra, usadio, ohitura eta legeen lehendabiziko bilduma izan zen. Ondoren, “amejoramenduen” bitartez, Erresumako elkarren arteko zuzenbidea izatera iritsiko da.

Dena dela, Erdi Aroaren akabera, epaileek ez zuten beti oso argi zein zen aplikatu beharreko legea, baziren eta Foru Orokorraren hainbat eskuizkribu eta, horrez gain, haxe guztia ere kontuan hartu beharra zegoen: tokiko foruak, Gorteek onetsitako arauak, Erromatar Zuzenbidearen errezeptzioa eta erregeak zuzenean ematen zuen legeria. Horregatik, beharrezkoa zen beste bilduma bat egitea.

XIX. MENDERA BITARTEKO BILDUMAK

Bilduma ofizialak

- Antonio Chavier-ek egindako Errekopilazioa, 1686koa. Gorteek onetsitako legeen bilduma da. Errekopilazioarekin batera, lehendabiziko aldiz, Foru Orokorra inprimatzen da.
- Bilduma Berria, Joaquin de Elizondorena, 1735koa.
- Gorteen Legeen koadernoak, 1724tik 1829ra. Barne zeuden Erregeari aurkeztutako eragozpenak hala nola Erregearen izenean erregeordeak zin egiten zituen lege “positiboak”.

Bildumak ez ofizialak eta administrazio mailako ordenantzak

- Foru Murriztua delakoa, 1530koa. Ez zuen erregeak berretsi baina erabili zen.
- Pasquier lizentziatuaren Ordenantzak, 1557koa eta 1567koa.
- Nafarroako Errege Kontseiluaren Ordenantzak, Eusak 1622an bilduta.
- Armendarizen Bildumak, 1614koa, erresumak onetsi ez zuena.
- Sada y Murilloren Bilduma, 1614koa ere bai, erregeak onetsi ez zuena.
- Irurzunek 1665ean argitara emandako legeen Erreperitorioa.

NOVISSIMA RECOPIACION DE LAS LEYES DE EL REINO DE NAVARRA,

HECHAS EN SUS CORTES GENERALES DESDE EL
año de 1512. hasta el de 1716. inclusivè.

*QUE CON ESPECIAL ORDEN DE LOS TRES ESTADOS HA
coordinado el Licenciado Don Joachin de Elizondo, Sindico, y Diputado que fuè del
mismo Reino, Oidor Togado de la Camara de Comptos, y ahora Oidor del Real
Consejo, infiriendo en la Recopilacion de los Sindicos, y à los Titulos à
que pertenecen todas las promulgadas en el referido tiempo.*


Y DEDICA

AL MISMO ILUSTRISSIMO REINO, Y A SUS TRES ESTADOS.

TOMO PRIMERO.




Año



1735.

20137

En Pamplona: En la Oficina de Joseph Joachin Martinez;



1841EKO LEGE HITZARTUAREN ONDOKO BILDUMA

- 1841eko abuztuaren 16ko lege Itunduak egindako aldaketaren ondotik, indarrean dauden Nafarroako Erresuma Zaharreko Foruen eta legeen bilduma eta iruzkinak.


José Alonso nafar legelariak egindako lana da, Madrilen 1848an argitara emana. Lan honen berezitasuna da lehendabiziko aldiz “itundua” esaten zaiola 1841eko Foruen aldaketarako legeari. Alonso Grazia eta Justi-ziako ministroa zen Lege Itundua aldarrikatu zenean.

NAFARROAKO FORUA BIRREZARRI ETA HOBETZEARI BURUZKO LEGE ORGANIKOA EDO 1982KO FORUAREN AMEJORAMENDUA

Transizio demokratikoan, 1978ko Konstituzioaren ondotik, Diputazioak “Nafarroako Zuzenbide Publiko-aren Foruaren” proiektu bat egin zuen. 90 Oinarrietan eta azken xedapen batean Nafarroako foru eraentza osoa biltzen zen. Proiektu hau, ordea, ez zen onartu, eta, azkenean aldaketa egin zen 1982ko Amejora-menduaren eskutik.

“Nafarroako Forua Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa” hitzarmen berria formalizatu zuen Estatuaren eta Nafarroaren artean. Esan daiteke bere 71 artikulua, hiru xedapen gehigarriak, zazpi iragan-korrek eta azken xedapena, indarrean dagoen Nafa-rroako Zuzenbide Publikoaren Bilduma direla, egun.

1982tik honat, komenio ugari egin dira Estatuarekin eta nafar erakundeek foru lege eta dekretu aunitz eman dituzte. Horrenbestez, askoz ere gehiago dira foru zuzenbideari dagozkion lege eta arauak, eta, horregatik, argitalpen biltzaile ugari egin dira.



Nafar Foruaren zenbait bilduma.

- Nafarroako Legeria administratiboa. Lehenbiziko liburukia 1917an argitaratu zen eta bigarrena, berriz, 1923an. Badira eranskinak 1924tik 1959ra. Bilduma honen egilea Luis Oroz Zabaleta da, Nafarroako Foru Diputazioko idazkari izan zena.
- Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria, martxoaren 1eko 1/1973 Legeak aldarrikatua. Indarrean dagoen Erre-suma zaharreko Zuzenbide Zibila biltzen du, bere ohitura, foru eta legeen tradizioaren eta erabilpenaren arabera.
- Nafarroako lege politikoen eta administratiboen Bilduma. Lehenbiziko argitalpena 1987koa da, eta, bigarrena, berriz, 1991koa. Indarrean dagoen Zuzenbide Publikoa biltzen du Foruaren Amejoramentuaren aldarrikapenetik bilduma hau argitara eman arte. Hauexek izan ziren egileak: Jose Antonio Razquin Lizarraga, Joan Luis Belgrán Aguirre, Pedro de Pablo Contreras eta Alfonso Zuazu Moneo.





Foru Sistema
Gaur Egun

FORUAREN AMEJORAMENDUA

Foruaren Amejoramendua Nafarroaren eta Estatuaren arteko hitzarmen berria da. Nafarroako ordezkaria Foru Diputazioa da eta Estatukoa, berriz, Gobernuak. Bi aldeek izendatutako batzordeek 1982ko martxoaren 8an erabarteko akordioa erdietsi zuten, negoziazio zabal eta luzearen ondotik. Ondoren, Foru Diputazioak onespena eman zion hitzarmenari eta Nafarroako Parlamentuak berretsi zuen. Gobernuak, aldi berean, zegokion lege-proiektua onetsi zuen, Deputatuen Kongresuak eta Senatuak, osoko eztabaidaz eta irakurketa bakarrez, berretsiko zutena. Erregeak, hitzarmen honen sartzea berretsi zuen Espainiako lege antolamenduan, 1982ko abuztuaren 10ean promulgatutako Lege Organikoaren bidez, eta urte hartan berean, abuztuaren 16an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara eman zen.

FORUAREN AMEJORAMENDUAREN ETA AUTONOMIA ESTATUTUEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK



Autonomia Estatutuek bermatzen dute Espainiako herrien sarbidea autonomiara. Foruaren Amejoramenduak ziurtatzen du foru araubidearen jarraitasun historikoa, hots, nafar herriaren konponketa autonomiko berezia da. Amejoramenduaren bidez foru araubidean barne hartutako eskumen autonomikoen betekizuna dela medio, Nafarroa da autonomia mailarik handiena duen Erkidegoa Espainiako guztien artean.

Amejoramenduak foru araubidea eguneratu zuen, hau da, horren bidez Nafarroako eskubide historikoak eguneratu ziren. Konstituzioak babestu egiten ditu eskubide historikoak eta horrek esan nahi du aintzat hartu dela oinarritzko printzipio bat, hots, eskubide horiek Diputazioaren eta Gobernuaren arteko akordioaren edo itunaren bidez besterik ezin dira aldatu.

Hautaturiko izenak, hots, “Foru Erkidegoa” delakoak, berariaz eta jakinaren gainean, ezberdintasuna mententzen du Autonomia Erkidego batekin.

Hau da Amejoramenduaren xedea: Nafarroako jatorrizko foru autonomia-tik datorren autogobernurako eskubidea, mendetako eskubidea, sakondu.

Era berean, Amejoramenduak aipatzen du Foru Erkidegoa “banaezina” dela. Horrek esan nahi du, Nafarroako lurraldeak ez daitezkeela elkarren artean zaitu edo bereizi.

Foru Hobetzearen Funtsezko Artikuluak

1. artikulua.

Nafarroa Foru Erkidego bat da, araubide, autonomia eta erakunde berekiak dituen, banaezina, Espainiako Nazioaren barnean sartua eta solidarioa haren herri guztiekin.

2. artikulua.

1. Botere publikoek Nafarroako Foru Erkidegoaren jatorrizko eskubide historikoak errespetatu eta babestuko dituzte, 1839ko urriaren 25eko Legeari, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduari eta xedapen osagarriei, Lege Organiko horni eta Konstituzioari jarraikiz.
2. Aitzineko idatzian xedatutakoak ez ditu ukituko Estatuaren eskumenak, konstituzio-batasunari badatxezkio.

3. artikulua.

Hauexek dira Hobetzearen helburuak:

1. Konstituzio-batasunarekin bateragarriak diren ahalmen eta eskumen guztiak Nafarroako Foru Araubidearen barnean sartzea.
2. Nafarroako Foru Erakundeak demokratikoki antolatzea.
3. Nafarroako Foru Araubidearen ahalmen eta eskumen bereki guztiak bermatzea.

4. artikulua.

Lege hau aldarrikatzen den unean Iruñea, Lizarrak, Tuterak, Zangozak eta Erriberriko merinerri historikoen barnean dauden udalerriak osatzen dute Nafarroako Foru Erkidegoko lurraldea.

5. artikulua.

1. Lege Organiko horni doakionean, Estatuak lege orokorreki jarraikiz Nafarroako edozein udalerritan herritartasun administratiboa duten espainiarrek dute nafartasun politikoa.
2. [Atzerrian bizi diren eta nafarrei eta hauen ondokoei dagokie].
3. Foru zuzenbide zibilaren arabera nafartasuna eskuratu, gorde, galdu eta berreskuratzeko Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma edo Nafarroako Foru Berria ezarritakoari jarraikiko zaio.

6. artikulua.

Nafarrek gainerako espainiarrek dituzten oinarriko eskubide, askatasun eta betebeharrak dituzte.

7. artikulua.

1. Nafarroako armaria, hondo gorriaren gainean paraturiko urrezko katez osaturik da, katemailaz osaturiko zortzi besoen elkargunean esmeralda bat dutela eta ororen gainean,

berriaz, Errege Koroa, Nafarroako antzinako Erresumaren sinboloa.

2. Nafarroako bandera gorria da, erdian armarrila duela.

8. artikulua.

Nafarroako hiriburua Iruñeko hiria da.

9. artikulua.

1. Gaztelara da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izan du Nafarroako eskualde euskaldunetan.

10. artikulua.

Nafarroako foru erakundeak hauek dira: Parlamentua edo Nafarroako Gorteak, Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioa eta Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioko Lehendakaria.

11. artikulua.

Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzen du, legegintzarako ahalmena erabiltzen, Nafarroako Aurrekontuak eta Kontuak onesten, Foru Diputazioaren jardura bultzatzen eta kontrolatzen [...]

23. artikulua.

Nafarroako Gobernua organu kolegiatua da, Lehendakariak eta Kontseilariak osaturikoa, politika orokorra ezartzen duena eta Foru Erkidegoko administrazioa zuzentzen duena. Bete-arazteko eginkizuna dagokio.

45. artikulua.

Bere foru araubidearen arioren, Nafarroako zerga eta finantza-jardura hitzarmen ekonomikoaren tradiziozko sistemaren bidez arautuko da, Nazioko Gobernuak eta Foru Diputazioak sinaturik, eta, Parlamentuari eta Gorte Nagasuei igorriko zaizkie lege arruntaren bidez onets ditzaten.

46. artikulua.

Toki Administrazioaren alorrean, Nafarroari dagozkio gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan jatorria dutenak. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Udak, Kontzejuak eta toki entitateen jarduketan legezatasuna eta ionteresa orokorra eramanen du.

48. artikulua.

1. Nafarroak eskumen osoa du Foru Zuzenbide Zibilaren alorrean
2. Indarra duen Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma edo Nafarroako Foru Berriaren zinketa, aldaketa eta garapena, foru lege bidez egiten da behar izanez gero.

Nafarroako egungo instituzio-markua, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeteari Buruzko Lege Organikoan datza, Nafarroako eta Estatuaren erakunde demokratikoen artean itundua, 1982an.

**Egungo Nafarroako
Parlamentuaren osaketa dela
eta, berreskuratu dira
Erresumako Gorte zaharrak
eta funtzionamendu
demokratikora egokitu dira.**

FORU ERAKUNDEAK GAUR EGUN

1978ko Konstituzioa onetsi ondoren, Nafarroan behin-behineko fase bati heldu zitzaion eta denboraldi horretan foru erakundeen demokratizazioa hasi zen. Azkenik, 1982ko Hobetzearen bidezko itun berriaren formalizazioak garrantzia handi handiko aldaketa berretsi zuen Nafarroako errealitate instituzionalean. Autonomien estatu berrian estatuko administrazioa murriztu da eta eskumen ugari lagatu ditu. Orain, Gobernu Delegatuak ordezkatzeko dituzten erregea eta Nazioko Gobernua. Gobernu Delegatuaren eginkizunak polizia aferak eta ordena publikoari dagozkionak dira, hein handi batean.

PARLAMENTUA EDO NAFARROAKO GORTEAK

Egungo Parlamentuaren edo Nafarroako Gorteen aurrekaria Foru Parlamentua izan zen, 1979ko urtarrilaren 26ko Errege Dekretu Itunduaren bidez ezarria. Estatuarekin egindako itun horrek abiarazi zuen Foruaren Hobetzearen

Saioa Nafarroako Parlamentuan.



prozesua, baina, egia esan, 1841eko Lege Itunduaren gerizpean sortutako erakundeak demokratizatzeraz mugatu zen. 1979ko itun honen arabera, Foru Parlamentua Foru Kontseiluaren ordezkari zen. Foru Kontseilu hori erakunde aholku emale hutsa zen udal alorrean izan ezik. Parlamentu hark sufragio unibertsalaz eta Merinerri historikoen bitartez hautaturiko 70 kide izan zituen.

Ondoren, Foruaren Hobetzeak behin-betiko finkatu zituen foru erakundeak, sistema parlamentarioa aukeratu zutenak. Halaxe dio Hobetzeak 11. artikuluan: “Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, legegintzarako ahalmena erabiltzeko, aurrekontuak eta kontuak onesten, Foru Diputazioaren jardura bultzatzen, eta ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzen”.

Foru parlamentarioan hautaketa arautu zen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legearen bidez, zeinaren bitartez ezarri baitzen foru parlamentarioak hautatuak izan direla Nafarroa osoa hartuko duen hautes-barruti bakar batean. Halaber, foru parlamentarioen kopurua murriztu zuen hirurogei eta hamarretik berrogei eta hamarrera. Lege hau indarrean dago, gaur egun.



1928an sortu zen Errepideetako Polizia Taldea, egungo Foruzaingoaren aurrekaria dena. Foruaren Amejoramentutik aitzina, eskumen gehiago eman zaizkio: hiritarren segurtasuna, ikuskaritza garraio alorrean, Foru Erkidegoaren menpeko pertsonen eta eraikinen zaintza eta babes, eta abar.

Hobetzeak Justiziaren Auzitegi Goreneko eraketa ezartzen du antolamendu judizialerako. Erregeak hautatuko du Auzitegiburua, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak proposaturik, bost urteko denboraldi baterako.

Funtzionamendurako Araubidea

Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzan du eta osoko bilkuretan edo batzordetan dihardu, bere Erregelamenduaren arabera. Erregelamenduak zehazten ditu Lehendakariaren, Ganbarako Mahaiaren eta Bozeramale



Batzordearen eginkizunak eta ezartzen du zein den Gobernuak igorritako lege-proiektuen edo foru parlamentarioek aurkeztutako lege proposamenen tramitazioarako jarraitu behar den prozedura. Era berean, Erregelamenduak eztabaida saioak arautzen ditu eta ezartzen du parlamentarioen disziplina-erregimena.

Foru parlamentarioak Parlamentari Taldeetan elkartzen dira eta Parlamentari Talde

hauek, ordezkaritza lortu duten alderdien, hautes koalizioen edo hautesle agrupazioen ordezkari dira.

Parlamentuko batzordeak ohikoak nahiz bereziak izan daitezke. Berezien artean, ikerketa batzordeak dira azpimarragarri, afera zehatzetarako era daitezkeenak.

Eginkizunak

- Parlamentuari haxe dagokio: foru legeen, aurrekontu nagusien eta Nafarroako kontuen, Hitzarmen Ekonomikoaren eta Estatuarekin eta Autonomi Erkidegoekin egindako gainontzeko lankidetzan hitzarmenen onespina, hala nola Nafarroarako interes orokorrekoak izan daitezkeen beste afera batzuen onarpena.

- Gobernuak Lehendakariaren aurkako zentzura mozioak aurkez ditzake eta onartzen badira, Gobernuburuak kargua utzi bidenabar mozioan proposatutako hautagaia Lehendakari izanen da.
- Halaber, Gobernuak aurkez ditzakeen konfiantza eskaerak onestea dagokio.
- Parlamentuak hautatzen du Foru Erkidegoa Espainiako Senatuan ordezkatzeko duen Senadorea eta Kontuen Ganbarako Lehendakaria hautatzen du.
- Parlamentuari, Gobernuari bezala, zilegi zaio Konsituiziokontrakotasuneko errekurtsua aurkeztea Konstituzioa Auzitegiaren aitzinean, Nafarroako eskumenak ukitzen dituzten Estatuaren edo beste Autonomi Erkidego baten legeen aurka.
- Azkenik, Gobernuari egindako galdera eta jabeldura bidez, Parlamentuak Gobernuaren jardueraren kontrolaren eginkizuna betearazten du.

Nafarroako berezko legeria

Legegintza-ekimena Gobernuari eta parlamentarioei dagokie. Gobernuari, lege-proiektuen bitartez eta parlamentarioei lege-proposamenen bitartez. Era berean, zenbaitetan, herri-ekimena eta udalena onartzen da.

Foru Lege batzuen garrantzia dela eta, espreski aipatzen dira Foruaren Hobetzean eta gehiengo osoz onartu behar dira, Konstituzioak aurreikusitako Lege organikoen antzera, azken horiek ere delako “quorum” hori ere behar baitute.

Nafarroako Aldizkari Ofizialak Foru Erkidegoaren legeria berekia biltzen du.

NAFARROAKO GOBERNUA EDO FORU DIPUTAZIOA

Antzinako Probintzia Foru Diputazioaren ondoko erakundea da. Beste eginkizun batzuek handitu egin dute erakunde honen gaitasuna administrazioaren alorrean. Gaur egun, Foru Parlamentuak kontrolatzen du. Foru Diputazioak edo Nafarroako Gobernuak dagoeneko, ez dihardu Merinerri Merinerri hautaturiko deputatuen gorpazio bat bezala. Lehendakariak izendatzen ditu diputatuak eta kide dira Lehendakariarekin batera kontseilariak, gehinez





ere bederatzi izan daitezkeenak. Gobernuari eginkizun betearazlea dagokio, erregelamenduzkoa eta administraziozkoa barnean direla, eta Foru Erkidegoko Administrazioa zuzentzen du. Kontseilariak edozein Gobernuko ministroen parekide dira eta arduratzen dira Foru Administrazioako Departamentu baten edo batzuen zuzendaritzaz. Gaur egun, hauxek dira Departamentuak: Lehendakaritza eta Barne Departamentua; Ekonomi eta Ogasun Departamentua; Hezkuntza eta Kultura; Osasuna; Toki Administrazio; Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri; Osasun; Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza; Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura; Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan; Herrilan, garraio eta Komunikazio Departamentua.

Nafarroako Gobernua da lehenagoko Probintziako Foru Diputazioari segida eman dion erakunde demokratikoa.

NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARIA

Erakunde bereki gisa egituratzen da Foruaren Hobetzean. Lehendabiziko aldiz, 1841etik honat, Diputazioko presidentea ez da Gobernari Zibila edo Gobernu delegatua, ezta ohorezko titulu gisa ere, baizik eta Foru Parlamentuak hautaturiko hautagaia. Lehendakari izendatu ondoren, diputaduak edo Gobernu kontseilariak izendatuko ditu. Bere kudeaketaz Parlamentuaren aurrean erantzuten du, zeinak Lehendakariaren dimisioa eska baitezake dagokion zentsura mozioaren bidez eta alde zuzenetik beste hautagai alternatibo bat aurkeztuta. Lehendakariak Nafarroako ordezkari goren du, baita Estatuaren ordezkari goren ere Nafarroan.



Nafarroako Gobernuko Batzar-Aretoa

NAFARROAKO JUSTIZIA AUZITEGI GORENA

Justiziaren administrazioarako organurik gorena da Nafarroan.

Hobetzeak Justizia Auzitegi Goren honen eraketa ezartzen du antolamendu judizialerako. Erregeak izendatuko du Auzitegiburua, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrak proposatuta, eta bost urteko denboraldirako.

KONTUEN GANBARA

1980ko urtarrilaren 28an ezarri zen, ez auzitegi independente gisa, Foru Parlamentuaren izaera teknikoko organu gisa baizik. Hauxe da bere egitekoa, hots, kontrolatu behar du Foru Diputazioaren kudeaketa ekonomikoa eta aholku eman behar dio Parlamentuari ekonomia eta finantza mailako alorrean. Erakuden historikoaz bestela da bere egiturari, eginkizunei eta funtzionamenduari dagokionez, baita bere izaera juridikoari berari doakionez ere. Foru Parlamentuak izendatzen du Kontuen Ganbarako Lehendakaria.

TOKIKO ERAKUNDEAK

TOKIKO ERAKUNDEAK: UDALERRIAK ETA KONTZEJUAK

Nafarroako foru araubidearen ezaugarrietako bat izan da tokiko erakundeek gobernurako izan duten askatasuna.

Nafarroako foru araubidearen ezaugarrietako bat beti izan da tokiko erakundeen gobernu askatasuna. Erdi Aroan erregeek merioak eta baileak izendatzen zituzten merinerrien eta bailegoen administraziorako. Tokiko erakundeak, ordea, oso bariatuak ziren garai hartan: hiriak, burgoak, hiribilduak, zendeak, herriak, almirerri edo almirantioak, Baztango unibertsitatea edo ballea, eta abar. Erakunde horietako bakoitzak udalerrri bat era zezakeen, bere foru, ordenantza eta kargodunekin.

Hasieran, herriak zuzenean parte hartzen zuen udal-aferetan, eta, horretarako auzolagun guztien kontzejua edo bilkura egiten zen, bana etxe edo familia bakoitzeko (kontzeju irekia). Bilkura edo batzarre horietan herri-ondasunei

buruzko erabakiak hartzen zituzten (egurra, auzolarrak, eta beste).

Denboraren joanean, erregimentuak edo udalak eratu ziren, kontzejuaren erakudea hobetzeko, baina ez zuten kontzejua baztertu. Orduan, udal kargu bariatu bariatuak hautatu zituzten eta izenak ere ez ziren gutxi izan. Haratx bestela: erregidoreak, alkateak, kargodunak, auzoko baileak, eta beste.

Funes



UDALERRI SOILAK ETA KONPOSATUAK. KONTZEJUAK

Nafarroako udalerri gehienak soilak dira, baina badira euren barrenean 475 kontzeju hartzen dituzten 62 udalerri konposatu. Beraz, kontzejua udalerriaren azpitik dagoen erakundea da, Nafarroako Araubide Pribatiboaren bereizitasuna delarik. (Tokiko Administrazioaren Foru Legeak dakarrenez).

Udalerri soiletan, Udala da administrazioaren organu bakarra. Zinegotzi kopurua zentsaturiko bizilagunen kopuruaren arabera da.

Udalerri konposatuetan, eskumen batzuk udal konposatuarenak dira eta beste batzuk, berriz, udalerri horren barnean egonik erabateko pertsonalitate juridikoa duten kontzejuenak. 1991z geroztik, Udalerrietarako eta Kontzejuetarako hauteskundeak batera egiten dira, bi erakundeen arteko koordinaketa errazteko.

Baztango Ballea Nafarroako luze-zabalera handieneko udala da (37.411 Ha.) eta udalerri soila da, baina barne antolaketa berezia duena. Hamabost herrik osatzen dute Ballea eta bakoitzak Kargodun bana hautatzen du. Balle osoaren gobernurako bada Balleko Junta Nagusia.



Baztan

SUBSIDIARIEDADE ETA SOLIDARIEDADE PRINTZIBIOAK

Subsidiariedadearen foru printzipioaren arabera, maila goragoko erakunde edo egitura batek ez du maila txikiagoko beste erakunde barne bizitza oztopatu behar, ezin dio eskumenak kendu. Goragokoak edo handiagoa denak txikiagoari laguntza eman behar dio, txikiak halaxe eskatuta, eta, gizartearen beste zatiekin bere iharduera koordinatu behar du.

Subsidiariedade printzipioak pertsonen, familien, gizarte talde naturalen, udalerrien eta erregioen autonomia bermatzen du, eta, are baita estatuena beraiena ere nazioarteko antolamenduen barnean.

Dena dela, subsidiariedade printzipio hau osatu behar da beste batekin, hots, elkartasunaren printzipioarekin. Azken honen bitartez, laguntza edo sostengua ("subsudioa") ematea posible da, behar izanez gero.

Beraz, elkartasuna subsidiariedade printzipioaren osagarri da eta honek bestea auresuposatzen du.

Nafarroako Forua bat dator goitik behera subsidiariedade eta elkartasun printzipioekin. Foru arauak beraiek ere osagarritzko zeregina dute, gizarte-ekimena edo ekimen pribatua aski ez denerako.

TOKIKO ETA ESKUALDEKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

Udalerriez eta kontzejuez gain, badira Nafarroako Foru Erkidegoaren lurraldea ere egituratzen duten tokiko beste erakunde batzuk. Hauexek dira:

- Bost merinerri historikoak (Iruña, Lizarra, Tuter, Erriberri eta Zangoza). Amejoramenduak dio merinerri horiek Nafarroako lurralde-azpi-banaketa osatzen dutela edo euren udalerrien elkarketa direla. Gaur egun, ordea, ez dute antolaketa politikorik, ezta eskumenik ere. Tuterako, Erriberriko eta Lizarrako merinerriak eskualde natural egokien parekoak izan daitezke. Ez, ordea, Zangozako eta Iruñekoak.
- Azken urteotan, indarrean sortu dira mankomunitateak, “uraren ziklo osoa” delakoaren kudeaketa egiteko. Uraren harpenaz, arazketaz eta banaketaz arduratzen dira hala nola zaborren bilketaz.
- Errege Bardeak, Aezkoa, Zaraitzu, Erronkari eta Santiago de Lokiz bezalako ustiapen-batzordeak, elkarren artean antza handia duten era-

Errege Bardeak.



kundeak dira. Eginkizun gutxi dute, herri-mendien eta bazkalekuen kudeaketari lotutakoak. Euren baliabideak ondare-ustiapenetan dautza.

- Hona hemen beste lurralde-banaketa batzuk: barruti judizialak, udalerri batzuk elkartzen dituztenak idazkari berbera baliatzeko, mediku-barrutiak edo oinarritzko osasun eskualdeak, hezkuntza mailako banaketa (eskola-mapa) eta beste.

NAFARROAKO FORU ERKIDEGOIA ETA ESPAINIAKO ERKIDEGO AUTONOMOAK

Esan izaten da Espainian hamazazpi Autonomi Erkidego daudela, horien artean barne sarturik Nafarroa. Alabainan, hori ez da zuzena. Zuzena da esatea Espainiako Estatuan hamasei Autonomi Erkidego daudela –gehi Ceuta eta Melillako hiri autonomoak– eta Foru Erkidego bat, hots, Nafarroa.

Autonomi Erkidegoak eratu dira, Konstituzioaren VIII Tituluak dioenari jarraiki, dagokion Autonomi Estatutua onetsi ondoren.

Nafarroa, ordea, ez da autonomi bidean sartu Estatutu baten bitartez, baizik eta bere foru araubide historikoa hobetu du –“amejoratu du”– Estatuarekin egindako itunari jarraiki. Delako itun hori Espainiako lege antolamenduan sartu da, 1982ko abuztuaren Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari Buruzko Lege Organikoaren bitartez.

Jakina, foru araubidea autonomia sistema bat denez, Konstituzioak baimen-dutako eskumen maila goreneko Autonomi Erkidegoek dituzten ahalmenak ere baditu Nafarroak alor aunitzetan.

Oinarri juridikoaren ikuspuntutik, ordea, Nafarroako eskumenak bere jatorrizko eskubideetan dautza, bere eskubide historikoetan. Horregatik, zenbaitetan, Nafarroak gainontzeko Autonomi Erkidegoen maila gainditzen du, fiskalitateari, funtzio publikoaren antolaketari, udal-araubideari, errepideei eta abarri doakienean.

Nafarroa ez da Autonomi Erkidegoa. Izan ere, Amejoramentuak dioen bezala, Nafarroa Foru Erkidegoa da.



ESPAINIAKO GORTE NAGUSIAK. ELKARREN ARTEKO LEGERIA

XIXgarren mendearen hasieran sortuak, Espainiako Gorte Nagusiak, oraindik ere, funtsezkoak dira. Izan ere, espainiar guztiak ordezkatzan dituzte nazioaren Gobernuaren aurrean eta Espainia osoari doazkion legeak egiten dituzte.

Gorte Nagusiek bi ganbara dituzte:

- Diputatuen Kongresua
- Senatua

Hauteskunde Orokorretan, nafarrek zuzenean bost diputatu eta hiru senadore hautatzen dituzte. Foru Parlamentuak gainera, beste senatore bat hautatzen du “senatore autonomikoa” deritzaiona.

ESTATUAREKIN PARTEKATUTAKO ESKUMENAK

Foruaren Hobetzearen arabera, Nafarroak erabiltzen dituen eskumen asko Estatuarekin partekatzen ditu. Eskumen horiek izan daitezke legeria garatze-koak edo betearaztekoak:

- “Legeria garatzeko eskumenetan”, Estatuak beretzako gordetzen du oinarritzko legeak emateko ahalmena eta foru legeak oinarritzko horietara lotu behar dira.
- “Beteazteko eskumena” delarik, Nafarroako Gobernuak erregelamendugintzako ahalmena erabiltzen du eta ez beste ezer eta Estatu mailako legeriari lotzen zaio, Gorte Nagusiek prestatutakoa.

FORUAREN HOBETZEA ETA AUTONOMI ESTATUTUAK

Konstituzioak autonomiarako eskubidea aitortzen die Espainiako erregioei eta nazionalitateei. Bada, Autonomi Estatutuak eskubide horren erabilpenaren ondorio dira. Foruaren Amejoramentuak ez du foru araubidea sortzen, baizik eta Estatuarekin egindako itun berria da eta bere xedea da aurretik zeuden foru erakundeak antolatzea erregimen demokratiko berrian eta, era berean, foru araubide historikoaren eskumenak bermatzea.

Autonomi Estatutua, Autonomi Erkidego bakoitzaren oinarritzko arau instituzionala da. Hauexek dira, ordea Nafarroako oinarritzko arau instituzionalak: 1839ko urriaren 25eko Legea, Foruak berretsi zituen, 1841eko Lege Itundua, Estatuarekin itundutako xedapen osagarriak eta 1982ko Amejoramentua bera.

NAFARROAKO ZUZENBIDEA EUROPAKO BATASUNEAN

Espainia, 1986ko urtarrilaren 1ean sartu zen Europako Erkidegoetan. 1992ko otsailaren 7an, hamabi estatuek Europako Batasuneko Ituna sinatu zuten, hots, Maastricheko Ituna esaten zaiona. Helburu nagusiaren arabera, batasuna lortu nahi dute ekonomiaren eta diruaren alorrean, horixe baita nahi-taezko betebeharra “Europako merkatu baturako”.

Europako Batasunak funtsezko aldaketa ekarri dio Espainiako Zuzenbideari. Izan ere, Espainiako Estatuak eskumen aunitzen erabilpena utzi du Europako Batasunaren esku. Lehenago, eskumen horiek Espainiako burujabetasunari zetxazkion: aduanak, fiskalitetea, kanpoko politika, diru-politika eta abar.

Baina, era berean, Europako Batasunak eman ditzake, egun Autonomi Erkidegoek edota Foru Erkidegoak, Nafarroak, erabilitako eskumenei eragiten dieten arauak –erregelamendu eta jarraibideak–.

Horrek esa nahi du, jakina, Europako Batasuneko zuzenbidea Nafarroan ere aplikatu beharrekoa dela. Beraz, Gobernuak emandako arauak edo Nafarroako legeriak bat etorri behar dute Europako Zuzenbidearekin.

Baina, Nafarroak, arrakastaz, Estatuaren zentralismoari eutsi egin zion bezala, Foruak nagusi gelditu behar du Bruselatik etor litekeen zentralismo berriaren aurrean. Zorionez, Europako Batasunak subsidiaritatearen oinarritzko printzipioa ezarri dute eta hori bermea da gure foru araubideak bizirik segi dezan.

EUROPAKO ZUZENBIDEA ETA AUTONOMI ERKIDEGOAK

Europako lege antolamenduak ez du barne hartzen Elkartearen lurralde osoan eskumena eduki zezakeen Administrazio baten eraketa, bere erakundeek emandako xedapenen betearazteaz ardura zitekeena. Europako Batzordeak ez du gobernu mailako eginkizunik. Administrazio mailako ahalmen batzuk besterik ez ditu: esate baterako, Europako diruen kudeaketari doakiona, baina ez du inolako eginkizun ejekutiborik kide diren Estaturen barnean. Horrenbestez, Estatu horiek Europatik datozen arauak betearaziko dituzte, euren konstituzio-arauen bitartez.



Europako Elkarteak betebeharrak ezartzen dizkie kide diren Estatuak, eta, ondorioz, Autonomi Erkidegoak. Betebeharrak betetzeko ez da beharrezkoa inolako araurik ematea. Aski da administrazioaren maila hutsean neurriak hartzearekin. 1994ko azaroaren 30eko Akordioak Autonomi Erkidegoen partaidetza arautzen du Europako aferei dagokienez.

Azken Ondorenak

Nafarroako forutasuna zinezko askatasunen sistema juridikoa da. Aspaldi aspaldian sortua, mila eta berrehun urtez mantendu da, denboraren joanean, hainbat formulazio ezberdin izan baditu ere, VIII. mendetik honat gertatu diren aldaketa politiko eta sozial handien arabera.

Forua, garaien arabera, moldagarria da. Badu egokitzeko indarra. Alabainan, Foruaren muinean datzan askatasunaren printzipioak bere horretan dirau.

Forua, Nafarroak autonomia erabiltzeko duen modua da. Nafarroak hori egiten du elkartasunaren printzipioan oinarritua, Espainian partaide diren gainontzeko herriekin batera.

Foruak nafarrei ematen die zuzenean dagokien gauza ororen gainean erabakitzeko eskubidea, kanpoko botereek eskua sartu gabe, konstituzio-batasuna deusetan kaltetu gabe. Batasun hori ez da ikusi behar botere politikoaren ideia zentralista batetik baizik eta ideia autonomista batetik.



Foruak demokratikoa izan behar du, beti Nafarroako herriaren zerbitzuan egonen bada.

Forua askatasuna da. Horregatik, beti nagusi izan behar du. Iraganeko erasoak eta beste aldi batzuetako ulertu ezinak gora-behera, bizirik iraun du mila eta berrehun urtetan barrena.

XXIgarren mendeko foruek Nafarroako herriaren askatasun kolektiboaren berme izaten segituko dute eta maila handiagoak ziurtatuko dizkiote aurrerabidean eta ongizatean.

Eranskinak

Dinastien Kronologia

Hiztegia

Bibliografia

711. urtean musulmanek armaz hartu zuten iberiar Penintsula, hispaniar-godoen erresuma desegin eta baskoiak bizi ziren lurralderaino iritsi ziren. Ehun urte luzetan Pirinio aldeko bazter hauetan elkarren arteko borroka latzetan aritu ziren hegoalde-tik etorritako musulmanak eta iparraldetik iritsitako frankoak. Baskoiek ere borroka horietan parte hartu zuten batzuen eta besteen aurka, harik eta IXgarren mendearen hasieran Iruñeko erresuma independentea sortu zen arte.

ARITZA DINASTIA (? - 905)

Eneko Aritza (? - 852). Iruñeko lehendabiziko erregea da. Ez dakigu zehazki noiz egin zuten errege, baina badakigu ongi moldatzen saiatu zela Tuterako Banukasitarrekin. Banukasitarrek musulmanak ziren. Nafarroako iparreko aldea besterik ez zuen kontrolatzen.

Gartzia Iñigez (852 - 882). Eneko Aritzaren semea. Harremanak bultzatuko ditu Asturiasko erresuma kristauarekin.

Fortun Gartzes, Monjea. (882 - 905). Gartzia Iñigezen semea. Leireko monasterioan sartuta, uko egin zion koroari, Antso Gartzes I.aren esku utziz.

JIMENA DINASTIA (905 - 1076)

Antso I.a Gartzes (905 - 925). Iruñeko Erresuma zabaltzen hasten da: Aragoako konterria hartuko du, Deio, Lizarrako Erriberako eta Errioxako puska bat. Adb-Al Rahman III.ak, ordea, garaitu egiten du Valdejunquerako batailan, 921ean.

Gartzia I.a Santxez (925 - 970). Antso Gartzesen semea.

Antso II.a Gartzes Abarka (970 - 994). Gartzia Santxezen semea. Almanzorren eraso-
eoi aurre egin behar die.

Gartzia Santxez II.a Dardaria (994 - 1004). Bere erregealdian gertatu ziren Almanzorren erasorik gogorrenak. Musulman horrek Santiago Konpostelakoa suntsitu zuen 997an eta, 998an, berriz, garaile sartu zen Iruñean.

Antso Gartzes III.a Handia (1004 - 1035). Iruñeko erresumaren hedadura-
rik handiena lortzen du. Ekialderantz Sobrarbe eta Ribagortza ere hartzen ditu mendean. Mendebalderantz, erdiesten du Gaztelako Konterriaren eta Leongo Koroaren erregentzia. Ia Espainia kristau osoraino zabaltzen da bere agintea, Bartzelonako Konterria salbuetsita, baina horiek ere aliatuak dira. Hil baino lehen, bere jabetzak semeen artean banatzen ditu.

Gartzia III.a Naxerakoa (1035 - 1054). Antso Handiaren semerik zaharrena da. Iruñeko Erresuma mantentzen du, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Errioxarekin. Naxer-
an ezartzen du bere gortea.



Antso III.a Handiaren erregealdiaren txanponak

Antso IV.a Peñalengoa (1054 - 1076). Gartzia Naxerakoaren semea. Anaiek hiltzen dute eta urte nahasiak hasiko dira. Erresumak Bizkaia galtzen du, baita Errioxako parte handi bat ere eta bat egiten du Aragoako Koroarekin.

BATASUNA ARAGOAKIN (1076 - 1134)

Antso V.a Ramirez (1076 - 1094). Iruñeko eta Aragoako errege. Bere erregealdian garrantzia hartzen du Santiago bideak, apez frantziarrak iristen dira, frankoen burguak sortzen dira eta tokiko foru asko ematen da. 1090. urtean, Nafarroako lehendabiziko Gorteak biltzen dira. Urte hauetan Cadreita eta Arguedas kentzen zaie mairuei.

Pedro I.a (1094 - 1104). Iruñeko eta Aragoako errege. Antso Ramirezen semea.

Alfontso I.a Borrokalaria (1104 - 1134). Honek lortzen du Tuterako Erriberaren errekonkista osoa.

ERRESUMAREN ERRESTAURAZIOA (1134 - 1234)

Gartzia Ramirez, Errestauratzailea (1134 - 1150). Errestauratzailea deritzaio Iruñeko Erresumaren independentzia berreskuratzen duelako. Gaztelauen eta aragoarren aurka borrokatu behar izaten du.

Antso VI.a Jakituna (1150 - 1194). Bere erregealdian hasten dira Nafarroako Erresumari buruzko lehendabiziko aipamenak. Irantzuko monasterioa fundatu eta Donostia birpopulatzen du, foru bat emanez.

Antso VII.a Azkarra (1194 - 1234). Antso Jakitunaren semea eta ospe handiko gizona, luzea, handia eta bizkorra izateagatik. Gipuzkoa eta Arabako probintziak galtzen ditu, bat egiten baitute Gaztelarekin, Biasteriko eta San Bizente de la Sonsierako eskualdeak izan ezik. Parte hartzen du Navas de Tolosako batailan, 1212an.

CHAMPAGNEko ETXEA (1234 - 1274)

Teobaldo I.a (1234 - 1253). Nafarroako lehen errege atzerritarra, Antso Azkarraren arreba baten semea zen. Erregealdi honetan hasten da Frantziako eraginpeko aroa. Nafarroako Foru Orokorra idazten da. Gurutzadetan parte hartzen du, 1238an.



Alfonso I.a Borrokaliaren Signum
Regis-a



Antso Azkarraren Zeinua



Teobaldo I.aren armarriak

Teobaldo II.a (1253 - 1270). Teobaldo I.aren semea. Luzaroan alde egiten du Champagne aldeko bere agindupeko lurak atenditzeko. Borrokan hiltzen da Tunisiako Gurutzadan, bere aitaginarreba San Luisekin batera, Frantziako errege zena.

Enrike I.a (1270 - 1274). Teobaldo I.aren anaia. Gizentasunak hiltzen du. Urte hauetan hasten dira Iruñeko burguen arteko gerrak.

FRANTZIako ETXEA (1274 - 1328)

Joana I.a (1274 - 1305). Aitaren erregetza oinordetzan hartzen du urte bat besterik ez zuenean. Horregatik, gobernari izendatzen dute Cascanteko Jauna. Joana Felipe I.a Ederrarekin ezkontzen da, 1284an, eta Nafarroa Parisetik gobernatuko dute. Iruñeko gerrek Nabarrerriako burguen suntsiketa ekartzen dute.


Nafarroako Luis I.a eta Frantziako X.a, Hutin edo Setatia (1305 - 1316). Joanaren semea. Frantziako errege da 1314tik 1316ra.

Joan I.a (1316), Frantziako eta Nafarroako Errege.

Felipe II.a Luzea (1316 - 1322). Halaber, Frantziako eta Nafarroako errege.

Karlos I.a Burusoila (1322 - 1328). Era berean, Frantziako eta Nafarroako errege. Horiek guztiek Parisetik gobernatzen dute, eta, ia ez dira Nafarroara etortzen. Karlos hau ondorengorik gabe hil zen.

Karlos III.a Noblearen armariak



EVREUXko ETXEA (1328 - 1479)

Joana II.a (1328 - 1349). Karlosen iloba zen eta Nafarroako nobleziak hautatu zuen. Frantziatik segituko du gobernatzen. Urte hauetan prestatzen da 1330eko Foruaren Amejoramendua. Felipe III.arekin ezkontzen da (1328 - 1345)

Karlos II.a Gaiztoa (1349 - 1387). Normandia aldean agindupeko lur asko zituen eta Frantziako erregearen alabarekin ezkondua zegoen. Horregatik, aunitzetan egoten da Nafarroatik kanpo. Urte hauetan, gero eta gehiago izan ziren Gaztelaren aurkako borrokak.

Karlos III.a Noble (1387 - 1425). Erresuma zaharreko erregerik hoberenetakoa da. Gortea Erriberrin ezarri zuen. Gorte hura Europako Gortetik disdiratsuenetakoa izan zen. Bakea ezartzen du Iruñean eta hiru burgiak batzen ditu Batasunaren Pribilegioa deritzaion agiriaren bitartez. Errege Kontseilua eta Kontuen Ganbara bezalako erakundeak sortzen ditu. Horrez gain, urte hauetan ere foruaren beste amejoramendu bat egiten da. Hiltzerakoan, ordea, Karlos III.ak ondorengotzari buruzko afera larria utzi zuen Nafarroan.



Karlos III.a Noblearen zigilua

Blanka (1425 - 1441). Bigarren aldiz ezkontzen da Aragoako Joan Infantearekin. Bere semea, Karlos printzea, Vianako Printzea, tronuaren oinordekoa zen jadanik.

Joan II.a (1441 - 1479). Erregina hiltzerakoan, nafarrak elkarren artean zatitzen dira. Batzuek (Beaumontarrek) Vianako Printzearen alde jokatu zuten eta, beste batzuek, berriz, Vianako Printzearen ugazaitaren alde, hots, Aragoako Joanen alde. Don Joanekek espetxeratu ere egiten du Vianako Printzea eta 1458tik aitzina, berriz ere, batuko du Nafarroako eta Aragoako gobernua. Vianako Printzea 1461ean hil zen eta bere arreba Doña Blanka izanen da bere oinordeko gobernadore gisa, baina 1464an pozoinduta hil zuten. Gobernadore gisa beste arreba bat jarraituko zaio, Doña Leonor. Bizkitartean, bere horretan dirau Nafarroa barneko gerrak, hots, Agramondarren eta Beaumontarren artekoak. Joan II.ak, ordea, Nafarroa, egitez, gobernatzen segitu zuen, harik eta 1479an hil zen arte. Hil baino lehen lortzen du bere seme Fernando Gaztelako infanta Isabelekin ezkontzea.

Doña Leonor (1479). Erregin egiten dute Joan II.a hiltzean, baina erregina bihurtu eta 15 egunetara hil zen eta bere biloba Frantzisko Febo izan zen oinordeko.

FOIX-LABRITeko DINASTIA (1479 - 1521)

Frantzisko Febo (1479 - 1483). Nafarroa Beherean bizi da. Bere erregealdian gogortu egin zen Beaumontarren eta Agramondarren arteko gerra zibila.

Foixko Katalina (1483 - 1517). Labriteko edo Albreteko Joan III.arekin (1491 - 1516) ezkondu zen. Nafarroako azken errege-erregin propioak dira, Gaztelak Nafarroa bereganatu zuen arte. Bere erregealdian inguruko erresumek are modu handiagoan eskua sartuko dute Nafarroan (Frantzia, Aragoa eta Gaztela).

GAZTELAREKIKO BATASUNA

Fernando Katolikoa (1512 - 1516). Azkenean, Beaumontarrek lagundurik, Aragoako errege Fernandok, bere emazte Isabel Katolikoa hil zenetik, Gaztelako gobernadorea zena, eta bere alaba Joanaren ize-nean, armaz hartu zuen Nafarroako erresuma. Labriteko Joan saiatu zen Erresuma 1512an eta 1516an berreskuratzen. Bere semeak, Enrike I.ak (1517 - 1555), hori lortuko du 1521ean, baina, azkenean garaitu zuten Noingo batailan. Ordutik honat, Nafarroako errege-erreginak Gaztelakoak eta Aragoako berberak izanen dira.



Vianako Karlos Printzearen erretratua. 1421 - 1461

Abolitu: Lege bat, agindu bat, erakunde bat indarririk gabe utzi edo indargabetu.

Absolutismo politikoa: Gobernu sistema horretan, subiranoa Estatuaren botere osoaren jabe da inolako mugarik gabe.

Ahalmenak: Eskumenak edo esleipenak.

Aldarrikatu: Botere legegilea duten organuek onetsitako legea argitara ematea.

Aldizkari Ofiziala: Aldian behingo argitalpena, zeinaren bitartez jakitera ematen baitira erakunde publikoen legeak eta erabakiak. Gehienetan siglak agertzen dira: NAF, Nafarroako Aldizkari Ofiziala da eta BOE, berriz, Estatuaren Buletin Ofiziala

Amejoramentua: Hobetzea. Foruari egiten zaion aldaketa eguneratzeko eta hobetzeko (Amejoramenduak edo Hobetzeak edota Foru Berriak)

Amejoratu: Hobetu. Nafarroako gazteleraren hitz peto petoa: gauza bat areagotu egoera on batetik hobeago batera pasarazteko.

Araua: Lege, foru, erregela edo agindu juridikoa.

Arautegia: Alor edo jarduera bati dagokion arau multzoa

Autogobernua: bere burua gobernatzeko gaitasuna.

Autonomia: Estatuaren barnean, halako lurralde batek duen ahalmena bere barne bizitza gobernatzeko.

Autonomia administratiboa: Gobernu edo administrazio mailako aferak konpontzeko gaitasuna da, baina legeak emateko gaitasunik gabe.

Autonomia politikoa: Autonomia administratiboari legeak emateko ahalmena gehitzen dion gaitasuna.

Baskoi: Erromatarrak, Penintsulara iristean, “baskoi” deitu zieten, funtsean, gaur egungo Nafarroaren luze zabalerarekin bat datorren lurraldean bizi ziren gizon-ema-kumeei. Halaber, Gipuzkoako, Errioxako eta Hueskako gaur egungo lurraldearen zati txiki batean bizi ziren.

Bilduma: Legeen edo beste agiri batzuen bilketa.

Dependentziak edo Zuzendaritzak: Garai batean, Nafarroako Foru Diputazioaren mendeen zeuden organismoak, gaur egungo “departamenduen” aurretik (osasun departamendua, hezkuntzakoa, eta abar).

Diputatua: Espainiako Gorte Nagusietan kongresukide edo parlamentario dena.

Eginkizun legegilea: Legeak egin eta onesten dituen.

Eginkizun exekutiboa edo administratiboa: Interes publikoen eguneroko gobernu eta administrazio mailako eginkizuna da.

Eginkizun judiziala: Epaileei dagokiena, legea aplikatu behar dute.

Elkartasuna: Printzipio honen arabera, gizarte bereko bi alderen artean elkarri laguntza emateko dagoen obligazioa.

Epaiketa: Auzia aztertzen dueneko prozesua. Epaileak epaia eman behar du, erabakia hartu behar du.

Erakundea: Estatua, nazioa eta gizartearen antolamendu nagusia, interes publikoko eginkizunak betetzeko.

Erkidegoa: Elkarren arteko interesen alde bildutako edo batutako pertsona multzoa. Autonomi Erkidegoa da 1978ko Konstituzioak ezarritako erregio mailako banaketa. Foru Erkidegoa da, egungo konstituzio-markuan, Nafarroaren izen ofiziala.

Errealistak: Espainiako lehendabiziko liberalismoari aurka egin zion iraultzaren kontrako jendea, erregimen zaharraren eta bere erakundeen alde.

Errege Kontseilua: Nafarroako Erresumaren auzitegi gorena zen eta erregeordearekin batera gobernu mailako zenbait eginkizunen ardura ere bazuen. Besteak beste, Udalen eta Kontzejuen fiskalizazioa. 1836an kendu zuten.

Erregeordea: Erregearen ordezkaritza zuen pertsonak hartzen zuen titulua. Nafarroan, Erdi Aroan, “lugarteniente” edo gobernadorea deitu zitzaion.

Errekopilazioa: Bilduma edo lege multzoa.

Erresuma: Gizartearen ordezkaritza da.

Erresumako Auzitegiak: Organu hauek auzi judizialez arduratzen ziren Nafarroako foru araubide zaharrean (Errege Kontseilua, Gorte Nagusia eta Kontuen Ganbara).

Eskumenak: Erakunde zehatz bati dagozkion edo erakunde horren ardurapean dauden eginkizunak eta eginbeharrak.

Estamentua: Gizarte-bizitza edo eginkizun berbera dituzten pertsonen osatutako giza-talde bakoitza.

Estatua: Herrialde subiranu edo herrialde independente bateko gobernu organuen multzoa.

Estatutua: Autonomi Erkidego baten funtzionamendurako oinarrizko arauak ezartzen dituen legea.

Europako Batasuna: Europako herrialdeen batasuna (gaur egun, hamabost dira), Maastrichteko ituna delakoaz geroztik sortutakoa.

Exekutiboa: Gobernu eta administrazio lanez arduratzen den organismo politikoa.

Foru Berria: 1973an itundutako eta aldarrikatutako nafar zuzenbide zibilaren bilerduma da.

Foru Diputatua: Nafarroako Foru Diputazioko kontseilaria edo kidea.

Foru Kontseilu Administratiboa: Foru eta Probintzia Diputazioak, 1898an, sortutako ordezkari-tza-organua.

Foru zabalak eta murriztuak: Erdi Aroan, errege-erreginek herriei eta hiribilduei ematen zizkieten foruak. Antzekotasunen arabera, foru taldetan elkartzen dira.

Foru zina: Jendaurreko ekitaldi honetan, erregeak edo bere funtzionarioek konpromezua hartzen dute foruak aintzat hartu eta gordetzeko.

Foru Zuzenbidea: Erkidego baten zuzenbide jatorrizkoa eta berekia, berari erabat dagokiona.

Foruaren Hobetzea: Horrela, laburrean, deitzen zaio Nafarroaren eta Estatuaren artean, 1982an aldarrikatutako Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari Buruzko Lege Organikoari.

Foruzaletasuna: Foruen aldeko iritzi korrentea.

Gamazada: German Gamazo ministroaren kontraforuaren karietarat, Nafarroan sortutako manifestazio multzoa.

Gobernadore Militarra: Gaur egun, bere egitekoak Defentsa Ministerioko Delegatuak betetzen ditu.

Gobernari zibila: Botere zentralaren mende dagoen kargua da, XIX. mendean sortu zutena, aginte zentralaren erabakiak probintzia bakoitzean betearazteko. Hasieran, “jefe politikoa” esan zitzaion. Foruaren Amejoramentutik honat, kargu hori desagertu egin zen eta haren egitekoak Foru Erkidegoko Gobernu Delegatuak hartu zituen bere gain. Duela gutxi legeak berriro eta kendu egin dituzte probintzia bat baino gehiagoko Autonomi Erkidegoetan zeuden Gobernari zibilak. Hauen ordez, orain probintzia bakoitzean Gobernu Delegatuaren mende dauden Azpidelegatuak daude.

Gobernu Delegatua: Autonomi Erkidego bakoitzean bada Gobernu Delegatu bana, Estatuaren Administrazioa zuzentzen duena, eta, hala dagokionean, Administrazio autonomikoarekin koordinatzen duena. Foruaren Amejoramentuak ere Gobernu Delegatua aurrikusten du Foru Erkidegoan.

Gorte Nagusia: Nafarroako Erresumako Auzitegi zaharretako bat. Huts hutsean eginkizun judizialak zituen.

Gorte Nagusiak: Espainiako herriaren ordezkari politikoen bilkura da (diputatuak edo senadoreak izan daitezke).

Hizarmena: Pertsona fisiko edo juridikoen artean egindako akordioa edo ituna.

Hitzarmen Ekonomikoa: Nafarroaren eta Estatuaren arteko ituna da, zeinaren bitartez finkatzen baita zenbateko dirutza eman behar dion Foru Erkidegoak Estatuari. Halaber, Nafarroako zerga-sistema harmonizatzen da Estatukoarekin.

Itundua: Hitzartua, akordiopekoa, elkar hartzea, ados jartzea.

Jadanekotasuna: Indarrean dauden edo baliozkoak diren legeen edo erakundeen nolakotasuna.

Karlista: Errege Don Karlosen lejitimitatearen aldekoa eta "Jainkoa, Aberria, Erregea" goiburuan bildutako printzipio tradizionalisten defentsorea.

Kontuen Ganbara: Nafarroako erresuma zaharreko auzitegia. Koroaren dirukontuez arduratzen zen eta, oro har, zerga eta diru kontuez ere bai. Gaur egun, modu berean deritzaio Foru Parlamentuaren mende dagoen erakundeari. Erakunde honek Nafarroako Gobernuaren eta Foru Erkidegoko gainontzeko Administrazio Publikoen dirukontuak eta jarduera ekonomikoa fiskalizatzen ditu.

Konstituzioa: Estatuaren funtsezko Legea. Bertan ezarrita daude elkarbizitzarako eta antolamendurako oinarritzko arauak.

Konstituzio-Auzitegia: Konstituzioaren interpretaziorako epailetzak duen organu-rik gorena.

Kontraforua: Erregeak edo honen edozein funtzionariok Foru Zuzenbidean egindako arau-haustea.

Kontseilari: Nafarroako Gobernuko edo Nafarroako Foru Diputazioko kideetarikoa bakoitza. Halaber, Foru Diputatua deritzaio.

Kontzejua: Lehenago, kontzeju irekia herri bateko auzolagun guztien batzarrea edo bilkura zen. Egun, Nafarroan, Kontzejua administrazio mailako tokiko banaketa da, Udalaren azpitik dagoena. Zenbait Kontzejuk udal konposatu bat osatzen dute.

Koraa: Metal preziatuzko eraztun-formako apaingarria, Erregearen buruan paratzen dena bere duintasunaren adierazgarri gisa. Hedaduraz, Koraa ere deitzen zaio errege batek gobernatzen duen erresumari edo erresuma multzoari. (Gaztelako Koraa, Aragoakoa)

Legea: Gizartean ezarritako araua, zeinaren bitartez zerbait agindu edo debekatzen baita, zuzentasunarekin bat eta gizartearen onerako.

Legelaria: Zuzenbidean diharduen pertsona.

Legeria: Estatu bat edo alor jakin bat gobernatzeko lege multzoa.

Liberala: Liberalismoaren aldekoa.

Liberalismoa: Frantziako Iraultzaz (1789) geroztik, sortutako mugimendua, Europa osoan zabaltzen dena XIX. mendearen hasmentan. Jatorrietan, oinarritzen da mundu politikoa, soziala eta ekonomikoaren izaera indibidualistan eta laizistan. Gaur egun, liberalismoa da askatasuna eta gizakiaren oinarritzko eskubide eta askatasunen ezagutza defenditzen duen ideologia, sistema politikoaren oinarriari begira.

Merinerria: Nafarroako betiko administrazio-banaketa, merio eta “sozmerino” delakoen mende zeudenak. Gaur egun bost dira (Iruña, Lizarra, Tuter, Tafalla-Erriberri eta Zangoza), baina ez dute eginkizun politiko zehatzik.

Monarkia: Gobernu molde bat da, Estatuaren buruzagitza oinordekotasunean oinarriturik duena. Erregimen Zaharrean botere osoa Erregearena zen. Gaur egun, Espainia “monarkia parlamentarioa” da, eta Koroaren eginkizuna da Estatuaren ordezkaritza bere gain edukitzea, besterik gabe. Ez du benetako botererik, subiranutasuna herriarena baita, Parlamentuaren bitartez betetzen dena.

Morala: Jokamoldeari buruz idatzirik ez dauden arauak, bereziki ekintzen ongiari edo gaizkiari dagozkionak.

Nafarroako Erresumaren Diputazioa: Nafarroako Erresumako Gorteek izendatutako Batzordea, bere akordioen betekizuna zaintzeko.

Nafarroako Gobernua edo Nafarroako Foru Diputazioa: Erakunde exekutiboa, Kontseilariak edo Foru Diputatuek osatutakoa, Gobernuko Lehendakariak izendatuak.

Nafarroako Gorteak: Lehenago, organu honek Nafarroako herriaren, erresumaren, ordezkaritza zuen erregearen aitzinean. Gaur egun, izen hori ere ematen zaio Foru Parlamentuari.

Nafarroako Foru Diputazioa: (Ikus, “Nafarroako Gobernua”).

Nafarroako Parlamentua edo Nafarroako Gorteak: Sufragio unibertsalaz hautaturiko erakundea, Nafarroako herriaren ordezkaritza duena, foru araubideko eskumen lege-gileak betetzen dituen eta Gobernuaren edo Foru Diputazioaren jarduna kontrolatzen duena.

Ohitura: Oso usadio erabilia, arau edo agindu bihurtzen dena.

Ohiturazko Zuzenbidea: Ohituran oinarritzen dena.

Ondarea: Pertsona natural edo juridiko baten ondasun multzoa.

Organismoa: Erakunde bat osatzen duen bulego, dependentzia edo enplegu multzoa.

Parlamentarioa: Parlamentu bateko kidea.

Prelazioa: Gauza batek lehenbizi atenditua izateko duen lehentasuna.

Pribilegioa: Etimologiari begira, lege pribatua esan nahi du (edo jende multzo bati dagokion legea). Beraz, beste pribilegioz edo lege orokorrezt bestelakoa izan daitekeena.

Sobrekarta: Erresumak duen eskubidea erregeak emandako arauak kontrolatzeko, arau horiek forutasunarekin bat datozen ala ez ikusteko.

Subiranotasuna: Botere publikoaren aginterik gorena.

Subsidiaritatea: Printzipio politiko honen arabera, erakunde txikiago edo beheargoko batek egin dezakena ez du erakunde handiagoak edo nagusiak egin behar.

Tradizioa: Belaunaldiz belaunaldi transmititzen den ohitura, ideia eta ondasun multzoa.

Udala: Udalerria administratzen duen erakundea-udalbatza.

Usadioa: Ohituraren hasierako ohiturazko zuzenbidearen forma, ohiturak hainbateko solemnitaterik ez duena, lege idatzien osagarri.

Zentralismoa: Estatuaren antolamendu molde bat da. Bere ezaugarriak hauexek dira: batetik, uniformitate osoa legerian, eta, bestetik, botere zentralak administrazio-eskumen guztiak bere gain hartuak ditu.

Zuzenbidea: Gizartean bizi diren gizakien arteko harremanak bideratzeko eta erregulatzeko arau, printzipio eta lege multzoa, eta, hiritar guztiek men egin behar diete. Legeez arduratzen den zientzia.

Zuzenbide itundua: Akordioaren edo itunaren bitartez sortzen edo aldatzen dena.

Zuzenbide Naturala: Bidezkoaren eta bidegabearen lehen printzipioen multzoa. Zuzenbide positiboa saiatzeko da lehen printzipio horiek gauzatzen.

Zuzenbide osagarria: Bigarren mailako izaera duena beste zuzenbide bati buruz.

Zuzenbide publikoa edo politikoa: Erakundeez eta hauen funtzionamenduez arduratzen dena.

Zuzenbide Zibila: Gizabanakoen harreman pribatuak arautzen dituen (familia, suzesioak, jabetza, betebeharrak eta kontratuak, e.a.).

AIZPÚN SANTAFÉ, Rafael: "Naturaleza jurídica de leyes forales de Navarra", *Príncipe de Viana Aldizkaria*, Iruña, 1952.

ALDEA EGUÍLAZ, Raimundo: *Los derechos de Navarra. Prontuario de divulgación foral*, 2. Argitalpena, Iruña, 1964.

- *Divulgación de los fueros*, Iruña, Nafarroako Foru Diputazioa, 1971.

ALLI ARANGUREN, J.C. eta RAZQUIN LIZARRAGA, M.M.: *Facultades y competencias de Navarra. Derecho Público de Navarra. El Amejoramiento del Fuero*, Iruña, 1992, 512-529 orr.

ANDRÉS-GALLEGO, José: *Historia Contemporánea de Navarra*, Iruña, 1982.

- Voz "Paccionada, Ley" *Gran Enciclopedia de Navarra argitalpenean*, Iruña, 1991.

BURGO TAJADURA, Jaime Ignacio del: *Origen y fundamento del régimen foral de Navarra*, Iruña, Aranzadi, 1967.

- *El Fuero: pasado, presente y futuro*, Pamplona, EUNSA, 1975.

- *Curso de Derecho Foral Público de Navarra*, Iruña, Aranzadi, 1996.

BURGO TORRES, Jaime del: *Historia de Navarra. La lucha por la libertad*, Madril, Tebas, 1978.

- *Historia General de Navarra*, Madril, RIALP, 1992, 3v.

D'ORS, Alvaro: «Autonomía de las personas y señorío del territorio», *Anuario de Derecho Foral-ean*, Iruña, 1976-1977, 9-25 orr.

- "Lo que Navarra puede enseñar al mundo", *Pregón Aldizkaria*, 8, 1996, 14-15 orr.

ETAYO, M. Pilar eta EIZAGUIRRE, M. Carmen: *Ven a conocer las instituciones forales*, Iruña, Nafarroako Gobernua, 1987.

GARCÍA GRANERO FERNÁNDEZ, Juan: «Fuero Viejo y Fuero Nuevo de Navarra», *Anuario de Derecho Foral*, Iruña, 1975, 131-226 orr.

- "De las fuentes de Derecho navarro. Compilación. Tradición jurídica navarra.

Paramiento. Libertad civil", *Comentarios al Código Civil y Compilaciones forales*. Madril, EDESA, v XXXV-1, 1990, 136-218, 300-333, 334-423 orr.

GORTARI UNANUA, Joaquín: *La transición política en Navarra, 1976-1979*, Iruña, 1995, 2v.

ITÚRBIDE DÍAZ, J.: *¿Qué sabes del Amejoramiento Foral?*, Iruña, Nafarroako Gobernua, 1983.

JUANBELTZ MARTÍNEZ, José Ignacio eta RIANCHO ANDRÉS, Rubén: *Nafarroako Parlamentua. Unitate Didaktikoa: Lehen eta Bigarren Hezkuntza*. Iruña, Nafarroako Parlamentua, 1997.

LACARRA, J.M.: «Estructura político-administrativa de Navarra antes de la Ley Paccionada», *Príncipe de Viana*, 1963, 92-93, 231-248 orr.
 - *Historia política del Reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla*, Iruña, 1972-1973, 3v.
 - «En torno a la formación del Fuero General de Navarra», *Anuario de Historia del Derecho español*, Madril, 1980, 55orr eta hurr.

LOPERENA ROTA, Demetrio: *Aproximación al régimen foral de Navarra*, Oinati, Instituto Vasco de Administración Pública, 1984.
 - *Derecho histórico y régimen local de Navarra*, Iruña, Nafarroako Gobernua, 1988.

MARTÍN DUQUE, Angel J.: «Navarra» *Gran Enciclopedia de Navarra argitalpenean*, Nafarroako Aurrezki Kutxa, Iruña, 1991.

MINA APAT, María Cruz: *Fueros y Revolución en Navarra*, Madril, Alianza, 1981.

NAGORE YARNOZ, Javier: «Principios generales. Comentarios a la ley 4 del FN» *argitalpenean*, *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, Madril, EDERSA, 1990, v.XXXV-1, 259-288 orr.
 - *Defensa de la navarritad*, Madril, DYRSA, 1987.
 - *Historia del Fuero Nuevo de Navarra*, Iruña, 1994.

OYARZUN, María eta Ramón: *Personalidad de Navarra*, Iruña, 1989.

RAZQUIN LIZARRAGA, José Antonio: *Fundamentos jurídicos del Amejoramiento del Fuero. Derechos históricos y régimen foral de Navarra*, Iruña, Nafarroako Gobernua, 1989.

SALCEDO IZU, Joaquín eta ANDRÉS-GALLEGO, José: Voz «Fuero» *Gran Enciclopedia de Navarra argitalpenean*, Iruña, NAK, 1991.

SALCEDO IZU, Joaquín: *Atribuciones de la diputación del Reino de Navarra*, Iruña, 1974.
- *Elementos de Historia del Derecho Navarro*, Iruña, 1989.
- *Las Cortes de Navarra en la Edad Media*, Valladolid, 1998.

SALINAS QUIJADA, Francisco: *Estudios de Historia del Derecho Foral de Navarra*, Iruña, Nafarroako Foru Diputazioa, 1978.
- *Compendio de Derecho civil navarro*, Iruña, 1991.
- *Artículos y conferencias (1977-1992)*, Iruña, 1993.

SANCHO REBULLIDA, F: «Prelación de fuentes. Comentarios a la ley 2 del FN»
Comentarios al Código civil y Compilaciones forales argitalpenean, Madril, EDESA, v.XXXV-1, 219-228 orr.

SUÁREZ FERNÁNDEZ, Luis: *Fernando el Católico y Navarra*, RIALP, Madril, 1985.

ZENBAITEN ARTEAN: *Parlamentua edo Nafarroako Gorteak*, Iruña, Nafarroako Parlamentua, 1985

Jarduerak

1. Defini itzazu zehatz eta argi honako terminoak eta kontzeptuak:

Aberria	Kristautasuna
Absolutismoa	Lege itundua
Autonomia	Liberalismoa
Estamentua	Monarkia
Foru berria	Nafarroako Foru Orokorra
Foru lokala	Nafarroako Parlamentua
Foru orokorra	Nazioa estatua
Forua	Nueva planta direlako dekretuak
Foruaren hobekuntza	Ohiturazko zuzenbidea
Foruen zina	Subsidiariorotasuna
Karlismoa	Zentralismoa
Konstituzioa	Zuzenbide publikoa
Kontraforua	Zuzenbide zibila

- Nahitaezkoa da kontzeptuok ongi barrenduta edukitzea Nafarroako foruak argi ulertzeko.
- Kontzeptuok ikasgai honetako edukien lehenbiziko parteari dagozkio (10. orrialdetik 19.eraingo).

2. Seinalatu eta aipatu Espainiako mapan Erdi Aro Beranteko Espainia osatzen zuten bost erresumak, kolore bana erabiliz (25. orr.).

3. Seinalatu eta aipatu Nafarroako mapan Erdi Aro Beranteko Nafarroak zituen sei merindadeak, kolore bana erabiliz.

Noiz eta zergatik galdu zuen Nafarroak seigarren merindadea? (27. orr.)

4. Esplika ezazu zergatik erantsi zitzaion Nafarroa Gaztelari eta horrek zer ondorio izan zituen (29. orr.).

5. Egin ezazue eztabaida ikasgelan Errege-erregina katolikoek Nafarroa Gaztelari eranstearen on-gaitzen gainean.
6. Bila ezazu informazioa San Inazio Loiolakoaren gainean eta egin lantxo bat haren bizitzari buruz, Nafarroarekin izan zuen loturako egintzak azpimarratuz.
7. Bila ezazu informazioa Noaingo batailaren gainean eta egin ikerketa lantxo bat gertaera horren gainean (29. orr.)
8. Bil itzazu 1812ko Cádizko konstituzioaren puntu nagusiak. Zer ekarri zion Nafarroari Cádizko konstituzioa aplikatzeak? (30. orr.).
9. Bila ezazu bibliografia Javier Mina “Ikastuna” delakoaren eta Frantzisko Espoz y Minaren gainean (31. orr.).
 - Bien bizitzaren laburpena egin.
 - Aipa ezazu bereziki nola parte hartu zuten Nafarroan frantsesen kontrako independentzia gerran.
 - Har ezazu ahotan gerrilla horiek zer helburu, zer hornibide eta zer taktika izaten zituzten.
 - XIX. mende hasieran bizi izan bazina, gerrilleroa izanen zinen? Zergatik? Zer arrazoik justifika zezakeen hori, zure ustez? Egin ezazu gerrillero horien jardunaren balorazioa.
10. Esplika ezazu zeure hitzak erabiliz zer den liberalismoa eta zertan den absolutismotik diferentea.
11. Zer gerra anti-iraultzailek erasan zioten Nafarroari iraultza liberalen aroan? (XVIII. eta XIX. mendeak). (30. orr.).
12. Zergatik zioten beldurra nafarrek erregimen liberala ezartzeari? (30. orr.).

13. Zure ustez liberalek ba al zuten arrazoirik Nafarroako erregimen bereziari eraso egiteko? Esan ezazu zergatik bai ala zergatik ez.
14. Esan ezazu zer gertaera politiko izan ziren Fernando VII.a hil ondoren eta zer ondorio ekarri zizkioten Nafarroari. (31. orr.).
15. Nor ziren karlistak? Zure ustez zer gertatuko zen Nafarroan 1840an karlistek irabazi balute? (31. orr.).
16. Bila ezazu informazioa Yanguas y Mirandaren gainean eta esan ezazu zertan nabarmendu zen politikari, idazle eta historialari bezala.

17. NAFARROAKO ERREGEAREN PROKLAMAZIOA

Erregeak, ezkutuan altxatu baino lehen, gurutzearen eta ebanjelio santuen gainean zin egin behar du bere mendekoen eskubideak begiratuko dituela, foruak hobetuko dizkiela beti eta ez makurtuko: indarrak desegingo: bertako gizonekin partituko dituela lurreko ondasunak, giza-aberatsak izan, zaldunak, kapareak edo bestelako gizon onak, eta ez arrotzekin. Eta erregea atzerrikoa bada, ez du atzerri horretatik bost gizon besterik ekarriko hemen gobernatu edo justizia partitzeko, eta ez bere zerbitzurako ere. Ez duela gortetik bilduko Erresuma honetako aberatsen oniritzirik gabe, eta ez duela beste errege edo erregina batekin ez gerrarik ez meniarik eginen eta ez beste egintza sonaturik edo erresuma-bahitzerik hamabi giza-aberatsen edo lur honetako hamabi jakintsu zaharrenen aholkua entzun gabe. Zigilua izanen duela bere aginduak emateko eta bere bizialdiko diru bermatua eta alferiza eta errege estandartea. Erregearen altxamendua Aita Santu, Artzapezpiku edo Apezpiku egoitza batean eginen da; erregeak gau osoan beilatu, meza entzun elizan, purpura eskaini, dirua eman eta komekatu behar du.

Altxamenduan, Giza-aberatsek bere ezkutuari gainean jasoko dute eta denek *Real, Real, Real* oihu egingen; orduan, erregek barreia dezala bere dirua jendearen gainean ehun sosetaraino, eta berak esteka dezala gerrian bere ezpata, gurutzearen itxurakoa, seinaleak ez duela lur gain honetan bere gainetik aitortzen. Erregearen altxamendua Iruñeko Santa Marian egingen da. Erresumaren zina hamabi giza-aberats edo jakintsuek egingen dute; eta gurutzearen eta ebanjelio santuen gainean zin egin behar dute Erregea eta Erresuma defendatuko dituztela eta lagun egingen diotela foruei leial eusten. Berehala esku-muina egingen diote.

J. Yanguas y Miranda-ren Diccionario de los Fueros liburuko "Rey" artikulutik hartua (76. orr.).

- Azpimarra itzazu erregearen zinari dagozkion hitzak.
 - Idatz ezazu nola izan litekeen zinaren formula, testuko ideiei lotuz eta gaurko hizkera erabiliz.
 - Bilatu hiztegian honako hitzen esangura: giza-aberats, kapare, sos, bahitu.
18. Egin ezazu Nafarroako erresumako instituzioen eta 1841 arte izan zituzten eginkizunen eskema bat (38-41 orr.).
 19. Defini ezazu zer den erregeordea. Zer diferentzia daude erregearen eta erregeordearen artean?
 20. Zer gizarte klasekoak izaten ziren Nafarroa erregeorde gehienak? Esan ezazu zergatik zen horrela.
 21. Esan ezazu gorteak zer ziren. (zer besok osatzen zuten Erdi Aroan instituzio hori?)
 22. Noiz sortu zen Erresumako diputazioa? Zer osaera zuen?

23. Zer auzitegi zituen Nafarroak 1841 arte?

24. FORUEI BURUZKO 1839KO URRIAREN 25KO LEGEA

“Erregina Isabelek, Jainkoaren eta Espainiako Konstituzioaren graziaz, eta bera adin txikikoa den artean Maria Kristina Borboikoa erregina alarguna, haren amak, Erresumako erregina gobernaria den partez, aditzera ematen die honako hau irakurtzen duten guztiei: Gorteeek honakoa onetsi eta guk berretsi dugu:

1. artikulua. Berresten zaizkie Probintzia baskongadoei eta Nafarroari beren foruak, Monarkia honen batasun konstituzionalari kalte egin gabe.

2. artikulua. Gobernuak, egokiera duen orduko, eta lehenbizi Probintzia baskongadoei eta Nafarroari entzutea emanik, proposatuko die gorteei direlako foru horietan probintzia horien interesak eskatzen duen gutxieneko aldaketa egiteko, Espainiaren eta Monarkiako Konstituzioaren interesarekin elkaturik; bitartean eta behin-behinekoz, eta arestian aipatu modu eta zentzuan, berek ebatziko dituzte dudak eta zailtasunak eta haren berri emanen Gorteei.

Horrenbestez, agintzen diegu Auzitegi, Justizia, Buruzagi, Gobernari eta gainerako agintari guztiei, zibilak, militarrek nahiz elizakoak izan, Lege hau begiratu, begirarazi, bete eta betearazi dezatela bere parte guztietan. Hala adituko duzue bete egin dadin eta aginduko duzue inprima, argitara eta jendartera dadila._ Nik, Erregina Gobernarioek. Erreginarene eskuz errubrikatua. Jauregian, 1839ko urriaren 25ean.”

- Lotu ezazu testu hau Bergarako hitzarmenarekin.
- Testuko ideia nagusiak laburbildu
- Zertan zetzan Espainiako batasun konstituzionala?

- Foruak arrisku bat al ziren batasun horri eusteko?
- Esan ezazu zer lotura dagoen foruen eta liberalismoaren artean. Dokumentuko zein esalditan aipatzen da lotura hori?

25. Foruak aldatzeari buruzko 1841eko legea. (33-37 orrialdeak)

- Bila ezazu lege honen gaineko informazioa eta laburbil itzazu 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 25. artikulua.
- Zer alderitan berdindu zen Nafarroa gainerako Espainiarekin?
- Zertan eutsi zion bere berezitasunari?
- Esan zer ondorio ekarri zizkion Nafarroari lege honek.
- Esplika ezazu zer interpretazio diferente piztu zituen Lege Itunduak?

26. 1841 arte Nafarroak zituen instituzioen eta 1841-1982 bitarteko arteko diferentziak. (41. orr.).

27. Kontuen Ganbera bisitatzeko ateraldia.

- Bila ezazu ganberaren gaineko informazioa ateraldia egin baino lehen.
- Presta itzazu zenbait galdera kontu interesgarrien gainean.
- Laburbil ezazu bisita.

28. Jar itzazu ardatz kronologiko batean Foru erregimenak 1812az geroztik izan dituen arrisku-une nagusiak. (43 orr.)

29. Esplika ezazu zer arrazoik justifikatzen dituzten foruen kontrako erasoak.

30. Zergatik ugaltzen dira Nafarroako instituzio berezien kontrako erasoak XIX. mendeko azken urteetan?

31. Laburbil ezazu Sarasate pasealekuko Foruen Monumentuaren historia.

- Azal itzazu, fotografiak erabiliz, monumentu horretako atal bakoitza.
- Txostentxo bat itxuratu “Gamazada”ren gainean. Zer izan zen? Zergatik? Zer ondorio izan zituen Nafarroarentzat?

32. Zer da Foruaren Hobekuntza) (54 eta 55. orr.).

- Esan zer pauso eman ziren hobekuntza onesteko.
- Noiz promulgatu zen?
- Noiz argitaratu zen BOEn?
- 55. orrialdeko testua lagun, laburbil itzazu ideia nagusiak.
- Zer eskumen eta ahalmen ematen dizkio Nafarroari 1982ko Forua Hobeagotzeko Legeak?

33. Zer da autonomi estatutu bat?

34. Seinalatu Espainiako mapa batean zein diren komunitate autonomoak.

- Zenbat komunitate autonomo daude?
- Zertan da Nafarroa berezia besteekiko? (65. orr.)
- Zertan da diferentea Foruaren Hobekuntza Autonomi estatutuetatik? (67. orr.)

35. Nafarroako Parlamentua edo gorteak gaur egun (56-59 orr.).

- eginkizunak
- bilkurak
- batzordeak eta osoko bilkura
- parlamentari kopurua
- parlamentariak nola hautatzen diren.
- irakaslea lagun, irudika ezazu eskema batean nola egiten den lege bat parlamentuan.

36. Nafarroako Parlamentua bisitatzeko ateraldia.

- Bila ezazu Parlamentuaren gaineko informazioa.
- Presta itzazu zenbait galdera gai interesgarrien gainean.
- Bisitaren laburpena egin.

37. Nafarroako Parlamentuak estatuko Gorteekin dituen harremanak (Kongresua eta Senatua).**38. Parlamentu bilkura bat antzeztu honakoak eraiki beharraren lehentasuna eztabaidatzeko:**

- Arte modernoko museo bat.
- Zezen plaza berria.
- Kirol estadio berria.

39. Europako parlamentua.

- Zein estatu daude bertan?
- Non dauka egoitza?
- Zer eginkizun ditu?
- Zenbat kide ditu eta Nafarroatik zenbat parlamentari joaten dira?

40. Zenbat parlamentu-hauteskundetan boto eman dezakete 18 urtez gorako nafarrek?

41. Nafarroako Gobernua edo Foru Diputazioa. (59-61 orr.)

Gai hauen gainean idatzi:

- Haren eginkizunak
- Haren osaera
- Lehendakaria nola hautatzen den.
- Nafarroako Gobernuako Lehendakariak zer eskumen dituen.

42. Zer da zentsura mozio bat?

- Laburbil ezazu bisita honetan ikasi duzuna.

44. Zer esan nahi du Europako Batasunak subsidiariotasun printzipioa defendatzen duela?

45. Subsidiariotasuna eta elkartasuna printzipioak elkarren osagarri dira. Zure ustez Nafarroa Forua bat al dator printzipio horiekin? Esan ezazu zergatik bai ala zergatik ez.

